

Kirola

Erresuma Batuko hainbat txirrindulari gazte eskualdean dira Duranguesak antolatutako truke programaren barruan. > 14



JAIK!

**OTXANDIO
ZORNOTZA**

Airearen kutsadura maila 41 bider gainditu zen iaz Durangaldean

Ekologistak Martxan erakundeak 2015eko aire kalitatearen neurketaren emaitzak argitaratu ditu. Eskualdean Durangon eta Zornotzan jaso dituzte datuak, eta Munduko Osasun Erakundearen indizeei jarraituta, 41 bider gainditu zen kutsadura maila. Suspentsio partikulen kutsaduraren kasuan, Euskal Herriko daturik txarrenak dira, batez ere Zornotzakoak. > 2

“Entzutera datorren jendeari emanaldi gozoa eta lasaia eskaini gura diot”

Amaia Urzainki | Abeslaria > 11



Dantzen tradizioa sasoi berrietara egokituz

Berrizko sanpedro eta santaisabel jaietan lehenengo pausoak ematen hasi dira parekidetasuna bermatze aldera. Gizon edo emakume, ateak zabalik dituzte Dantzari Dantzan. > 2



Lehior Elorriaga


Anbotoren lagunak
Lekuan lekuko lagunak



www.anboto.org
Tel.: 946 816 558
lagunak@anboto.org

**AZKEN EGUNAK Andaluziara
edo Costa Doradara bidaiak
irabazteko Anbotoren Lagun eginez**

ZOZKETA UZTAILAREN 15EAN



Durango > 4

50 durangarrek bat egin dute errefuxiatuen plataformagaz

Zaldibar > 6

Emantzipazioa bultzatzeko Barrura mugimendua sortu dute

Elorrio > 8

Ramadanari agur esan diote 70 elorriarrek jaialdi bategaz

Izurtza > 3

Ezgaitasunen bat duten 9 saharar etorri dira Izurtzara

Herririk herri

Aire kutsatuaren maila 41 bider gainditu zen iaz, Ekologistak Martxan txostenaren arabera

Durangaldeko datuak Euskal Herriko txarrenak dira suspentsio partikulen arloan; osasunerako kaltegarrienak direla diote

DURANGALDEA M.Onaindia
Airearen kalitateak okerrera egin zuen 2015ean. Hori da Ekologistak Martxan erakundeak Espainiar estatuan egindako azterketaren ondorioa, eta kezka azaldu du azken urteetako joera

baikorra eten egin delako. Neur-gailu ofizialen datuak erabili dituzte txostenean, eta suspentsio partikulak, nitrogeno dioxidoa, sufre dioxidoa eta ozono troposferikoa izan dira kontuan hartutako kutsagaiak. Durangaldean,

Durango eta Zornotzako estazioetan, suspentsio partikulen datuek Munduko Osasun Erakundeak (MOE) ezarritako muga pasa zuten: aire kutsatuaren maila 41 bider gainditu zen iaz. Suspentsioko partikulen arloan,

Euskal Herriko daturik txarrenak dira Durangaldekoak, Zornotzakoak batez ere.

Zelaieta parkeko estazioan urteko 12 egunetan gainditu zen partikula handien (PM₁₀) muga balioa -50 mikrogramo metro kubikoko-, eta 9 egunetan partikula txiki (PM_{2,5}) langa, 25 mikrogramo kubikokoa. Durangon, 7 eta 13 egunetan gainditu ziren mailak, hurrenez hurren. MOEren gomendioak dio, 3 egunetik gorako datua ez dela onargarria. Zumarragan, esaterako, gehiagotan gainditu ziren mugak, 16 eta 22 egunetan, baina urte osoko datuen batezbestekoa eginda, Zornotzakoak dira daturik okerrrenak.

Zelaieta parkeko estazioan urteko 12 egunetan gainditu zen partikula handien muga

Kutsagarrienak

Ekologistak Martxanek azaldu dute, zientzialarien arabera suspentsio partikulak direla substantzia kutsagarrienak, eta arnas-arazoak edota biriketako minbizia eragin ahal dituztela. Suspentsio partikulen baitan, airean esekitako substantzia ugari sartzen dira. PM_{2,5} partikula txikiak dira osasunerako kaltegarrienak, gorputzeko arnasbideetan errazen sartzen direnak baitira. Trafikoak, industriak edota zentral termikoek isurtzen dituzten materialak daude tartean, Ekologistak Martxaneko ikerlariak diotenez.

Indize desberdinak

Amankomunazgoak 2013an egindako ikerketaren arabera,

eskualdeko aire kalitatea onargarria zen, eta 2006az geroztik, hoberantz egin zuela adierazten zen. PM_{2,5}-aren batez besteko orokorrak ez zuen MOEren muga gainditzen, baina gune batzuetakoek bai, Durangoko

Trafikoak, industriak edota zentral termikoek isurtzen dituzten materialak daude tartean

San Rokekoak, adibidez. Kontua da airea neurtzeko instituzioek erabili dituzten indizeak ez direla MOErenak, Europar Batasunak ezarritako indize malguagoak baizik. Ekologistak Martxanek salatu du indize horiek MOErenetara hurreratzeko saiakera egin zela Europan, baina agintariek atzera bota zutela.

Neurri eske

Txostenean islatu dutenez, industriak edukitako suspertzeak eta trafikoaren areagotzeak zerikusia izan dezakete 2015ean

2013an egindako ikerketaren arabera, eskualdeko aire kalitatea onargarria zen

airearen kalitateak txarrera egiteagaz. Ekologistak Martxan erakundetik, trafikoak murrizteko eta oinezko zein bizikleta bidezko garraioak indartzea eskatu diete instituzioei. Bestalde, industria instalazioak hobetzea, energiaren kontsumoa bajatzea eta energia berriztagarrien alde egitea ere eskatu dute.



Trafikoa murrizteko neurriak eskatu ditu Ekologistak Martxan erakundeak.

	PM ₁₀		PM _{2,5}	
	EGUNAK	URTEA BATEZ BESTE	EGUNAK	URTEA BATEZ BESTE
	MOE: 3 egun max. EB: 35 egun max	MOE: 20 mikrogramo max. EB: 40 mikrogramo max	MOE eta EB: 3 egun max.	MOE: 10 mikrogramo max. / EB: 20 mikrogramo max.
DURANGO	7 egun	20 mikrogramo/m ³	13 egun	12 mikrogramo/m ³
ZORNOTZA	12 egun	26 mikrogramo/m ³	9 egun	12 mikrogramo/m ³

anboto 
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta
Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa:
946 232 523

Publizitatea:
946 217 902
publi@anboto.org

2016ko uztailaren 8a
14. urtea - 640. alea

Zuzendaria:
Jone Guenetxea Arrinda.
Administrazio burua:
Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa:
Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea:
Itxaso Martinez de
Arenaza Yarza eta Nagore
Txintxurreta Isasi.
Erredakzioa:
Aitziber Basauri Gandiaga,
Itsaso Esteban Urtiaga,
Joseba Derteano Bilbao,
Markel Onaindia Txabarri,
eta Maialen Zuazubiskar
Gallastegi.
Maketazioa:
Eider Alberdi Bengoa.
Zuzentzailea:
Mikel Azkarraga Etxegibel.

Laguntzaileak:



"Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua"

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek
Bizkaiko Foru
Aldundiaren
laguntza jaso du



Hamabi ume sahararrek Axpen pasako dute uda

ATXONDO J.Guenetxea

12 ume sahararrek Axpeko aterpetxean pasatuko dute uda. Iaz ere ume talde honek leku berean pasatu zituen oporrak, beraz, esperientzia errepikatuzera datoz. Uztailearen lehen etorri ziren, eta abuztuaren 30era arte egongo dira Atxondon. Astearte batean egiteaz gainera, itsasontzian ibiltzera joango dira esperientzia berri moduan. Gainera, beste udaleku batzuetan dauden ume sahararrekin elkartrukea egingo dute.

Lau arduradunek uztaila eta abuztua aterpetxean pasatuko dute esperientzia hau bizitzen. Horrez gainera, beste hainbat hezitzailek astebeteko txandak egingo dituzte. Ume sahararrek mediku azterketak egiteko ere baliatuko dute udako oporraldia.

Elorrioren ere bai

Elorrioko Udalak ongietorria eman die uda pasatzera etorri diren sei ume sahararrei, eta euren harrera-familien lana goraipatu dute.



Axpeko aterpetxean pasatuko dute uda 12 ume sahararrek.

Ezgaitasunen bat duten bederatzizaharar etorri dira aurten Izurtzara

Inoiz baino elkartasun keinu gehiago jaso ditu Rio de Oro elkarteak

IZURTZA J.Derteano

Tindufeko kanpalekuan bi-zi diren eta ezgaitasunen bat duten gazte saharar batzuek Izurtzan emango dute uda. Rio de Oro elkarteak aurten laugarrenez gauzatuko duen elkartasun ekimena gero eta txertatuago dago eskualdean. Horren lekuko dira azken hiletan askotariko elkarteek ekimenari laguntzeko egindako diru bilketak: Durango Rugby taldearena (1.514 euro) eta Fair Play Padel klubarena (3.323 euro), besteak beste: "Lau-bost elkarte desberdinetatik jaso dugu diru-laguntza. 600 eta 300 eurotik gorako donazio anonimoak ere izan ditugu. Egia esanda, aurtengoa mundiala izan da, eta esker oneko gaude", dio Aitor Lejarazu Rio de Oroko kideak. Eroskin deskontuak egiten dizkiete, eta Arymux-en zein Durango eta Iurretako udalen laguntza ere jaso dute.

Aurten 6-11 urte arteko bederatzizaharar etorri dira, aurreikusitakoa baino bi gu-

txiago: "Baten gurasoek atzera egin dute azken unean. Guraso batzuei kosta egiten zaie hile biko seme-alabei joaten uztea. Azken batean, gu ezzagunak gara eurentzat, eta ezgaitasunen bat duten umeak dira. Abenduan baietz esan ziguten, baina azken unean beldurra-edo sartu zaie, eta ezetz erabaki dute. Bigarren gazteak, berriz, Mauritaniara joan behar izan du azken orduan gurasoekin".

Azken hori taldeko beternoena zen. Orain Mohamed Yahya-k hartu dio lekukoa. Aurten hirugarrenez etorri da 2014an bihotzeko ebakuntza egin zioten gaztea: "Aste bi barru du hitzordua kardiologoagaz, baina ederto etorri da, pozik eta saltoka". Aurten hiru ume berriak dira, aurretik etorri gabekoak. Den-denei mediku azterketa desberdinak egingo dizkiete hemen dauden bitartean.



Izurtzako Abadetxean egongo dira, abuztuaren amaierara arte.



Clase A Berria, 230€/hilean*. Bat egin belaunaldi berriarekin.

Belaunaldi berriaren bizimodura bikain moldatzen den autoa duzu. Mercedes-Benz-en Clase A Berria, DYNAMIC SELECT gidatze-sistema, COLLISION PREVENTION ASSIST PLUS eta LED High Performance argiak dituen. Zuretzat da; hilean 230€*-ren truke, 48 kuotatan (sarrera 7.000€, azken kuota 13.006,50€*, ITN %9,95, UTB %9,32).

Batez besteko kontsumoa 3,7-3,9 l/100km eta CO₂-a isurtzea 98-104g/km.

*Finantzaketa-adibidea: Clase A 180d, I.P. 24.950€ (zergak, PIVE 8 plana, garraioa eta aurre-entregatze gastuak barne), Mercedes-Benz Financial Services España, E.F.C., S.A.-ren Alternative programari esker. Bruselas Etorbidea 30 - 28108 Madril. Baliozkoak: 2016/07/31ra arte onartutako eskariak, kontratua indarrean eta 2016/09/30era arte matrikulatutako ibilgailuak edo PIVE 8 plana amaitu arte. Baliozko eskaintza: 20.000 km urteko. ** Azken kuotarako 3 aukera: ibilgailua aldatu, itzuli (kontratua baldintzak betez gero) edo ibilgailua eskuratu, azken kuota ordaindu ondoren. Argazkiko modeloa ez dagokio eskaintzari. Informazio gehiago www.mercedes-benz.es/en.

Mercedes-Benz
The best or nothing.



AGUINAGA

Bizkaiko Mercedes-Benz kontzesionario ofizial bakarra
info@aguinaga.es - www.aguinaga.es

Borua Industrialdea, 2. Nabea 3
48340 ZORNOTZA
Tel.: 94 630 17 47

50 durangarrek bat egin dute errefuxiatuen aldeko plataformagaz

Lehenengo bi ekintzak prest dituzte: argazki erraldoia eta kontzentrazioa



Ongi Etorri Errefuxiatuak-Durangoko kideek ateratako argazkia plataformaren sorreran.

DURANGO M.O. / J.G.

Ongi Etorri Errefuxiatuak-Durango izenagaz plataforma sortu dute herrian. Hainbat herri-tarrek eta zenbait elkarte, sindikatu eta alderditako kideek bat egin dute ekimen honeguz. Lehenengo pausoak ematen hasi den egitasmoak berrogeita hamar lagun inguru batu dituela aurreratu dute egitasmoaren bultzatzaileek.

Plataformako kideek joan zen astean egin zuten lehenengo batzarra, eta dagoeneko ekin-tza bi prestatu dituzte. Argazki erraldoia eta elkarretaratzea.

Uztailaren 14an elkarretaratzea burutuko dute Andra Marian, 20:00etan

Argazkia Andra Marin

Atzorako jarri zuen platafor-mak bere lehenengo hitzordua, argazki erraldoia ateratzeko, hain zuzen. Irudia ateratzeko, Andra Marian batzeko deia egin zieten herritar guztiei, eta han-dik kalejiran joatea zen asmoa, Santa Anaraino.

Elkarretaratzea hurrengo

Bestalde, hilaren 14an elkarreta-ratzea burutuko dute 20:00etan, Andra Marian, Bilbo, Madril eta Bartzelonatik Tesalonicara (Grezia) abiatuko den karaba-naren irteeragaz bat eginez.

Plataformaren helburuak gaiaren inguruan sentsibiliza-zioa sortzea eta Durango erre-fuxiatuak hartzeko prestatzea dira. Izan ere, udala prest dago erabilgarri dituen etxeak Al-dundiari eta Eusko Jaurlaritzari lagatzeko, errefuxiatuei ba-

besa emateko. Era berean, Ongi Etorri Errefuxiatuak-Durango plataforma Ongi Etorri Erre-fuxiatuak euskal plataforman txertatuko dela azaldu dute eki-menaren bultzatzaileek.

Durangoko taldea Ongi Etorri Errefuxiatuak euskal plataforman txertatuko da

Andereaken ildotik

Plataforma sortzeko ideia orain aste bi sortu zen. Durangoko Andereak elkarteak antolatuta-ko berbaldi batean —Ongi Etorri Errefuxiatuak taldeko brigadistek Idomenin (Grezia) izandako bizipenen berri eman zutena— jarri zuten ekimenaren lehen hazia.

Mendiolako San Kristobalak hasiko dira gaur

ABADIÑO I.E.

Gaur, 18:00etan, txopoa altxa-tzeagaz batera hasiko dituzte Mendiola auzoko San Kristobal jaia. Hiru egunetarako egi-taraua prestatu du Jai Batzor-deak, gaur, bihar eta etziko. Ohiturari jarraituz, 20:30ean berakatz zopa jan, eta kontzer-tuak izango dituzte gozagai, 22:00etan. Lau taldek joko dute: Drug Rockets, Niña Coyote eta Chico Tornado, Riff Truckers eta Txapito Guzman & Ibarra-ko Langostinuek taldeek.

Uztailaren 9koa, berriz, erromeriazaleen gaua izango da Mendiolan: Luhartz taldea arituko da, 22:00etan. Errome-ria hasi orduko, egun osoan, beste hainbat ekin-tza izango dira bihar Mendiolako jaie-tan: auzoko baserrien argaz-kien erakusketa egingo du-te, 11:30ean; meza, 12:00etan; kotxe zaharren erakusketa, 13:00etan; eta herri bazkaria, 14:30ean. Bazkalosteko umeen jolasen ostean, ardi-txakurren txapelketa eta tortilla txapelke-ta egingo dituzte.

Barikua eta zapatua on-do aprobetxatuta, domekan dantzarien emanaldia izan-go da, 12:30ean, eta Mariachi Amatitán taldearen zuzeneko musika, 20:30ean. Mariatxien saioaren ostean kenduko dute Donien Atxa.

Santamaña jaietarako prest daude Arriandin

IURRETA A.B.

Jai giroa izango dute hurrengo asteburuan Arriandin, santa-mañen eskutik. Santa Maña eguna, uztailak 18, izango dute egun handia, eta usadioari jarraituz, tortillak, gozokiak, karramarroak eta edariak ba-natuko dituzte bertaratuko direnen artean. Hori 12:00eta-ko meza nagusia bukatu os-tean izango da. Ondoren, San-ta Mañako XXXIX. Tortilla Txapelketa eta Santa Mañako XXXII. Igel Txapelketa ere egin-gio dituzte Arriandi auzokoek.

Arratsaldean Amezketako in-guruan izango dute jai giroa. XLIX. Briska txapelketa hasiko dute 18:00etan, Amezketako eskoletan. Gorriti eta bere ani-malien eskutik umeentzako eta helduentzako jolasak hasiko dira 19:00etan.

Dena den, bezperan ere izan-go da zer egin Arriandin. Santa Mañako II. Mus Relanpago Txa-pelketa izango dute, 17:30ean, Arri-andi jatetxean.

San Kristobal eguna

Aurretik joango da, hala ere, San Kristobal eguna. Domekan bertan, uztailak 10, ospatuko dute Azkorako basilizan. Tri-kitilariak girotutako herri baz-karia izango dute bertaratuko direnek. Aurretik, 12:00etan, meza izango dute.

Larreako futbol-zelaia berrizteko lanak abian

Errugbian jokatzeko egokituko dute, besteak beste

ZORNOTZA J.Derteano

Hasi dira Larreako futbol-zelaia berrizteko obrak. Egingo diren lan nagusiak futbol 7ko zelaia handitzea —bi izatetik hiru iza-tera pasatuko dira— eta udale-rriko lehenengo errugbi-zelaia sortzea izango dira. Horretara-ko, zelaia markatu egingo dute,

eta errugbiko bi ate desmunta-garri berri jarriko dituzte.

Bide-zorua berriztatu eta zoru artifiziala osorik aldatuko dute. Halaber, biltegi bat jarri-ko da, ureztatzeko automatikoko sarerako ur-tanga gisa erabiliko dena. Sistema honek uren apro-betxamendua ahalbidetuko du.



Zoruko belar artifiziala aldatzen dabilta egunotan.

Gasteizko linearako, egunean hiru zerbitzu gehiago proposatu dituzte

Arabako Aldundiaren proposamenen harira, batzarra egin du EH Bilduk

DURANGO M.O.

Arabako Aldundiak Duran-go-Gasteiz autobus linearako ordutegi berria proposatu du, eta horren baitan, egunean hiru zerbitzu gehiago proposatu ditu, bai joanerako bai etorrirako.

Orain arte, lineak zazpi bi-daia egin izan ditu aste barruan (zazpina joanekoan zein etorri-koan), eta lau asteburuetan. He-mendik aurrera, hamar eta bost izatea, hurrenez hurren, propo-satu du aldundi arabarrak.

Aldaketa proposamenen ha-rira, EH Bilduk herritarrekin landu gura izan du gaia, eta eguaztenean batzar zabala egin zuen zenbait erabiltzaileguz.

Orain arte, lineak zazpi bidaia egin izan ditu aste barruan, eta lau asteburuetan

“Uste dugu durangarren ikus-pegitik zer esanik badaukagula, bereziki zerbitzu honen gabe-ziak kontuan izanik”.

Kexa asko

Izan ere, autobus linea horrek kexa asko jaso izan ditu Duran-galdeko erabiltzaileen partetik. Maiztasuna handitzea eta zerbi-tzua hobetzea dira eskaeretako batzuk, bidaia ezinik geratu baitira sarri, matxura eta atze-rapenengatik.

**RENAULT**
Passion for life

Bigarren eskuko ibilgailuek espazio zabala behar zuten, eta eman egin diegu.

GAURSA OCASIÓN

ESPAZIO ZABALA

BIGARREN ESKUKO IBILGAILUAK IURRETAN

Kalitate handia eskaintzen dugulako (ehun puntutan baino gehiagotan errebisatutako autoak); 24 hilabeterainoko bermea ematen dugulako; stock handia eta marka guztietako ibilgailu-aukera zabala dugulako; gure prezioak azken prezioak direlako; finantziario-baldintza ezin hobeak eskaintzen ditugulako... Eta beste hainbat arrazoi tarteko, bigarren eskuko ibilgailu baten bila bazabiltza, zatoz **IURRETAKO GAURSA ZENTRO HANDIRA.**

**RENAULT**
OCASIÓN

ZER EZ ZENUKE EMANGO HORRELAKO AUTO BATENGATIK

GAURSA

Arriandi, 12. Tel. 94 620 33 00. IURRETA www.gaursa.com



**Seguros
Bilbao**

RUEDA BILBAO ASEGURUAK
Jabier Rueda

Landako etorbidea, 1 DURANGO
Tel.: 946 202 710 - Faxa: 946 816 577
jrueda@segurosbilbao.com



GREMIOEN GIDA



ARKITEKTURA

**ARKI
TEK
SAN**

OBREN ZUZENDARITZA
PROIEKTUAK / BIRGAITZEAK
ERREFORMA ETA GARAPENERAKO
NEGOZIO LOKALEN PROIEKTUAK
ERAIKINEN IKUSKAPEN TEKNIKOAK
NEURKETAK, PLANOAK
ETA AURREKONTUAK EGITEA
ERAGINKORTASUN
ENERGETIKOKO ZIURTAGIRIAK

WWW.ARKITEKSAN.COM
622 745 419
NIZETO URKIZU 12. ELORRIO
INFO@ARKITEKSAN.COM



GARBIKETA

**AZKARGI
GARBIKETAK**

Auzo elkarte, garaje
eta obra osteko garbiketak

Goietia, 46 - 2 esk. ELORRIO
Tel.: 615 791 215



LOREZAINITZA

Jardines
Patxi
Lorategiak

Mantenua eta diseinua
Landaketa eta Inausketak
Ureztatze sistemak
Barrualde eta kanpoaldea
Eskatu zure aurrekontua beldur barik

Montevideo, 23-1 ezk DURANGO
PATXI: 696 463 085



ITURGINTZA

Mallabiena

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA
BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.

Mallabiena industrigunea, 6
48215 IURRETA · Tel.: 946 818 862
mallabiena@mallabiena.com

Ubide
iturgintza

Iturgintza, gasa eta berokuntza

946 030 506 / 625 702 208
ubide@euskalnet.net
48200 DURANGO
188 PK.

**UNAI
GARAY**

ITURGINTZA
BEROGINTZA
GASA

Kanpatorrosteta 7B, 3.A · 48200 Durango
659 673 790 · unaigaray@yahoo.es



DEKORAZIOA

JAIObarnizatuak

Markoen, ateen, zokaloen,
armairu aurrekaldeen eta
era askotariko altzairuen lakadura.

Pintura eta pintura apaingarria.

Era guztietako zaharberritzeak egiten ditugu.

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A · BERRIZ
Tel./Faxa: 946 824 143 · Mug.: 658 758 421
info@jaiobarnizatuak.com
www.jaiobarnizatuak.com



LEIHOAK

Leihoak

ALUMINIOA · PVC-A · MISTOA

Casimiro Astola kalea, 12 ABADIÑO
info@ventanas-durango
Tel.: 652 736 339
www.ventanas-durango.com



**Profesional
onenak zure
zerbitzura!**

Beti-betiko herri kanta kantuzaleen ahotan entzuteko aukera domekan

Herri kanta egunaren seigarren aldiak 200 bat kantuzale batuko ditu



Kantuzaleak Otxandioko plazan kantuan.

OTXANDIO J.Derteano
Otxandio kantuzaleen topagune bihurtuko da domekako VI. Herri Kanta Egunean. Beti-betiko klasiko ezagunak zein Otxandion bertan kantatzen zirenak, bietarik entzuteko aukera egongo da Euskal Herriko hainbat herritatik etorriko diren kantuzaleen ahotik. Otxandion, bertako eta Durangaldeko kantuzaleez gainera,

Arrasate, Aretxabaleta, Eibar, Algorta, Bilbo, Elgoibar eta beste hainbat tokitakoak batuko dira. Guztira, 200 bat lagunek kantu-kantari girotuko dituzte herriko kaleak, 12:30etik bazkaldura arte.

Emili Donadok bere sasoian liburu bitan batutako kantuetako batzuk eskainiko dituzte. Horietako hainbat, erdiak inguru, tradizioz Otxandion kantatu

izan direnak dira: “Kanpoko jendearentzat ez dira hain ezagunak, baina gustatzen zaizkie tokiko kanta, eta gustura kantatzen dituzte”, dio Txomin Bengoa ekimeneko antolatzaileetako batek. Ondoren, 15:00 aldera, Pasealekuan batuko dira bazkaritara. Bazkalostea kantuan eta dantzan emango dute berriro. Soinubil elkarteak da kanta eguneko antolatzailea.

Erakustxakurren lehiaketa San Pedroko zelaian

MALLABIA J. Guenetxea

La Verdad ehiza eta arrantza elkarteak 44. Erakustxakurren lehiaketa antolatuko du San Pedroko zelaian, datorren uztailearen 16an. 9:00etan ekingo diote lehiaketari. Txakurren abilezia erakusteko aukera izango dute jabeek. Bakoitzak hiru galeper izango ditu. Txapelketaren berezitasunetako bat

Arratsaldean, Mallabiko eta Ermuko 40 ehiztarik parte hartzea aurreikusi dute antolatzaileek

da galeperra ez dutela hiltzen. Goizeko txandan, 15-20 partaide izango direla aurreratu du Agustin Udabe antolatzaileak.

Arratsaldean, Mallabiko eta Ermuko ehiztarien txanda izango da. 16:00etan hasita 40 bat lagunek parte hartzea aurreikusi dute.

Herriko pilota txapelketako partidua hasiko dira hilaren 16an

MAÑARIA M.O.

Herriko pilota txapelketak lehen pausoak emango ditu datorren egunetan. Izan ere, hilaren 16an kanporaketak hasiko dira, eta jai batzordeak izena emateko epea argitaratu du. Hilaren 15a, bezpera, izango da izena emateko azken eguna, eta herriko tabernetan daude inskripzio-orriak.

Gizonezko zein emakumezkoek parte hartu ahaliko dute txapelketan. Hurrengo zapatuan jokatuko dira kanporaketak, 17:00etatik aurrera, 12 tantotara. Finala Andra Mari jaietan jokatu da, abuztuaren 15ean, 18:00etan.

Bezpera izango da izena emateko azken eguna, eta herriko tabernetan daude inskripzio-orriak



Errezoa egiteko unean, emakumeak eta gizonak aparte kokatu ziren.

Ramadanari agur esan diote 70 bat elorriarrek jaialdi zabal batez

“Gure kultura auzokideekin partekatu gura genuen”, esan du Ouladek

ELORRIO M.O.

Eguaztenean amaitu zen Ramadan, musulmanen baraualdia. Hilabetez, egunero, eguzkia iriten denetik sartu arte ez dute jaten eta edaten, ezta sexu harremanik edukitzen ere. “Jainkoari eskertza emateko modu bat da, guri laguntzeagatik eta indarra emateagatik”, azaldu du Najib Oulad Elorrioko imanak. Eguaztenean, eskolako pabilioian batu eta ramadanari agur esan zioten 70 bat elorriarrek. Jaialdi zabala izan zen, lehenengoz, herritarrei euren bizimodua ezagutze-

ra emateko helburuagaz, eta horregatik ospatu zuten eskolan. “Gure kultura auzokideekin partekatu gura genuen”, esan du Ouladek. Errezatu egin zuten, emakume eta gizonak aparte zeudela, eta ostean, tea eta pastak eskaini zituzten.

Elorrioren, gustura

Elorrioko musulmanen elkarteak 2010ean sortu zuten, eta Anduetxeta kalean daukate bilgune kulturala. Herrian gustura bizi direla azaldu du imanak: “Elorrioren baldintza onak daude, eta

%70ek lana dauka. Gainera, herri polita eta lasaia da”.

Euren erlijioa, islama, indarkergiaz lotuta ageri da askotan komunikabideetan, eta, horren aurrean, elkarbizitzarako deia egin du Ouladek: “Gutxiengoa dira ekintza anker horiek egiten dituzten musulmanak, ez daude burutik ondo. Ez da mendebaldeko arriskua bakarrik; gure herri eta leku sakratuetan dago arriskurik handiena. Elkarbizitzaren alde lan egin behar dugu, bai guk bai agintariek”.

clínica dental hortz klinika
b. unamunzaga e. etxebarria



ODONTOLOGIA OROKORRA ETA ESPEZIALITATEAK
08:00etatik 21:00etara ZABALIK

Muruetatorre, 2C blokea, behea - 48200 Durango
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454 - uecdental@gmail.com

hitz
liburudenda

#gomendioak

artekalea 14, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com



HELDUENTZAT
ZAZPIGARREN
HERIOTZA
Juan Geroatidi (2015)



UME ETA GAZTEENTZAT
TXINARA
BIDAIA
Béla eta Marko (2016)



MUSIKA
WATER FROM
THE WELL
The Chieftains (2000)

Autokarabana gunea inauguratuko dute bihar, Durangaldeko lehena

Turistak herrira erakartzeko baliatu gura dute autokarabana gunea



San Jose auzunean prest dago autokarabana gunea turistak hartzeko.

ELORRIO Markel Onaindia
Bihar inauguratuko dute Durangaldeko lehen autokarabana gunea, Elorrion. Udalak 2013tik eduki du buruan proiektua, eta, azkenean, bihar ikusi du argia. Turistak herrira erakartzeko baliatu gura dute. Bihar, 12:00etan izango da inaugurazioa, San Josen bertan.

Autokarabanentzako 10 leku izango ditu, eta beste bi espazio ur zikinak bota edota elektrizitate hartu ahal izateko. Horrez gainera, mahaiak, txin-txaunak eta berdegune bat egongo dira, karabanistei atseden hartzeko aukera emateko. Oraindik inauguratu barik egon arren, joan

zen asteburuan jadanik zenbait gunea erabili zutela azaldu du Idoia Buruaga alkateak. “Gustura egon dira, eta udala zoriondu dute”. Asteburu honetan datozenei, herrian bisita gidaturen bat egitea eskainiko diete.

Gobernu Planekoa

Udalak 100 neurriko Gobernu Plan bat aukeztu zuen legealdirako, eta aurten 32 beteko ditu. Dagoeneko, 18 beteta edo amaitzean ditu, eta horietako bat da autokarabana gunearena. Uztailean zehar Berriotxo kaleko sarbidearen kontrola ezarriko dute, eta turismorako webgunea

bistaratu ere bai. Udaletxe ostetxe lursailaren erabilera laster argitzea espero dute, iritzia emateko epea amaitu berri dago eta.

Hemendik eta urte amaierara bitartean 14 egitasmo ipini gura dituzte martxan. Hurrengoak dira horietako batzuk: Herri galdeketa egiteko ordenantza, herriko elkarrekin gida, Berdintasun Plan berriaren diseinua, eta Aldapebeitia Txikia eraikineko teilatua konpontzea.

EH Bilduren gobernuaren lehen urtean “balantze positiboa” egin du Buruagak. Nabarmendu du “talde izaera” dutela, eta herritarren partaidetzagaz garatzen dituztela proiektuak.

San Kristobal Txiki eguna ospatuko dute uztailearen 10ean

BERRIZ M.Z.

Domeka honetan San Kristobal Txiki eguna ospatuko dute berriztarrek. 12:30ean urteroko meza egongo da, eta, ondoren, herriko dantzariak dantza saioa eskainiko dute, San Kristobalen.

Bestalde, zahartze aktiboa eta belaunaldien arteko elkar-tasuna bultzatzen jarraitzeko, domeka honetan, 10:00etan, Berriztik irten eta San Kristobalera joango dira oinez.

Legazpiko burdinola bisitatzeko aukera

GARAI M.O.

San Migel nagusien elkarrekin irteera kulturala antolatu du datorren martitzenerako, hileren 12rako. Hain zuzen ere, Legazpira joango dira, eta han, Mirandaolako burdinola eta langile etxea bisitatzeko aukera edukiko dute. Gainera, bazkaria ere egingo dute. 09:30ean irtengo dira egunpasan. Domekara arte eman ahal da izena, Herriko tabernan, 27 euroren truke.

SEI HANKAKO MAHAIA

IDOIA AGORRIA
PSE-EE



Atzoko eta gaurko umeak

Lehen bezala orain ere haiek dira biktimarik ahulenak. 1937. urtean, milaka haur iheslari ontziratu zituzten beste herrialde batzuetara eramateko. Haurrez betetako itsasontziak Bilbotik, Santanderetik eta Bartzelonatik atera ziren, Frantziara, Belgikara, SESBra, Venezuelara edota Mexikora joateko. Ni jaio gabe nengoen artean, baina sarritan entzun ditut errefuxiatu haien istorioak, eta argazkiak ikusi ditut, azkenean Frantzian edo Estatu Batuetan kokatu ziren senide haienak. Orain, historia berriz errepikatzen ari da, sorburuko herrialdeak eta protagonistak baino ez dira aldatu. Exodo jendetsu horietan, haurrak dira berriro biktimarik ahulenak. Unicefen arabera, lagunduta ez zeuden 10.000 haur iheslari baino gehiago desagertu dira gure mugen barruan, arrastorik utzi gabe, eta kopuru horrek gora egin lezake.

Izua, mina, lotsa... Batzuek “iheslarien krisia” aipatzen dute, baina “izaera humanitarioko krisi handi” bat besterik ez da. Ez dira nazioarteko arauak betetzen, ezta giza eskubideak eta pertsona guztien osotasunerako eta duintasunerako eskubideak ere, Europako instituzioek nahi-taez bete behar badituzte ere.

Durangoko Udalak, erakunde gisa, bat egin zuen “Ongi Etorri Errefuxiatuak” plataformaren eskaerekin, eta iheslari-erantzutzaileak seguru bat sortzea aldarrikatu zuen. Gainera, baliabideak jarri zituen iheslariak jaso ahal izateko. Orain, herri-plataforma bat sortu berri da, Andereak elkarrekin bultzadaz. Plataforma hori ez da begira sor eta gor gelditu; zutik jarri da izuaren eta minaren aurrean, lotsaren lotsaz... Eta “Ongi etorri, errefuxiatuak” oihukatzen dugu.

DURANGALDEA ASTEON

Batzarra Arrazolako eskola zaharrari buruz

ATXONDO > Domeka honetan, uztaile 10, batzarra deitu du udalak Arrazolako eskola zaharrari buruz berba egiteko. 12:00etan hasiko da batzar zabal hori, eta eraikinerako egitasmo berriaren inguruko ekarpenak egiteko aukera egongo da, udal arduradunek ohar bidez azaldu dutenez.

Saltsanen banatu dute Ipad-aren txartela

DURANGO > Euskararen erabilera sustatzeko, Durangoko dendetan salerosketak euskaraz egiten dituztenen artean Ipad bat zozkatzen du ITG taldeak.

23. zozketako sariduna 493.251 zenbakia da, Saltsanen banatutakoa. Ordezko zenbakia, berriz, 477.325 zenbakia da, Naturalki dendan emandakoa.

Bizikletarte lehiaketa, hirugarren edizioan

DURANGO > Udalak antolatzen duen Bizikletarte lehiaketak hirugarren edizioa beteko du aurten. Interbentzio artistikoen bidez, mugikortasun jasangarriaren inguruan gogoeta egitea da helburua.

Proposamenak bidaltzeko azken eguna abuztuaren 31 izango da, eta 700 euroko saria egongo da jokoan.

IRITZIA

✉ astekaria@anboto.org
astekaria 17:00ak arteko epea

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215 - Iurreta •
Izen-abizenak • telefonoa • helbidea
• Nortasun Agiriaren zenbakia

DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO

Alderdi, elkarrekin edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOn irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

ANBOTOK ez du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabeetan, iritzi artikuluetan edo gutunetan adierazitakoen eta emandako iritzien erantzukizunik.

Albisteak eta agenda, bizkor eta eskura.

Telefono gida osatuena: zuzenean deitzeko aukera.

Parte hartu, galderak eginez, erantzunak lortuz.

Pertsonalizatu, zure herria aukeratuz.

DESKARGATU DOAN !



anboto.org
MUGIKORREAN



> Berbaz

Maialen Narbaiza (1982) eta Ismael Lasarte (1973) | Iremiñe eta San Lorentzo dantza taldeetako ordezkariak | Berriz



“Ez gabiltza tradizioa apurtzen, egiten baino, sasoiotara moldatzen”

Herriko jaietako Dantzari Dantzan emakumearen presentzia bermatzeko deialdi zabala egin dute aurten

> BERBAZ Aitziber Basauri
Berrizko Iremiñe eta San Lorentzo dantza taldeek, herriko beste hainbat elkartegaz batera, sanpedro eta santaisabel jaietan emakumearen presentzia bermatzeko ibilbideari ekin diote. Udalak Berdintasun sailaren bitartez egindako deialdiari heldu diote, eta hori nola bideratu ikusteko zenbait batzar egin dituzte urritik hona. Neskek ere Dantzari Dantzan parte hartzea “prozesu natural bat” izango dela argi dute Maialen Narbaizak (Iremiñe) eta Ismael Lasartek (San Lorentzo).

Genero ikuspegitik gauzak mugitzen ari dira dantza munduan. Berrizen ere bai, ezta? Ismael Lasarte: Sanpedro eta santaisabel jaietan Dantzari Dantza egiten da beti, eta ekitaldi horretan emakumearen presentzia nola bermatu aztertzen ibili gara. Askok galdetu digute zergatik ez duten Dantzari Dantza egiten emakumeek, eta guk argi dugu egun hori heldu-

ko dela. San Lorentzok Dantzari Dantza baino ez du egiten —ez du neska talderik—. Duela bost urte umetxoena sortu genuen, eta Dantzari Dantza egiten dute neskek zein mutilek. Besterik ez dakigu. Baina, taldeko neskato nagusienak 9 urte ditu eta gaztegia da plazara irteteko. 15-16 urterekin, prozesu natural baten ondorioz, eta hala nahi badi, baliteke irtetea.

Maialen Narbaiza: Orain hasi gara Iremiñen ere, irakasten dugunon artean, elkarri Dantzari Dantza zein ilanderen dantzak erakusten. Hartara, neska-mutilei denetarik erakusteko.

“Umeak ere badatoz atzetik; horiek beste modu batera biziko dute dena”

Lehenengo pausoa da hau. Baina ez duzue, aurten behintzat, plazan islatzerik izan...

M.N.: Dantzari Dantza osoa dakien neskarik ez dago. Astirik ere ez du eman ikasteko. Astiro astiro joango gara bidea egiten.

I.L.: Hala ere, deialdia zabala izan da aurten neska zein mutilentzat. Hori berori aurrerapauso bat da. Hala ere, denagaz gertatzen den moduan, denbora beharko da. Sekula Dantzari Dantza egin ez duen dantzariak ezin du hilabeteen ikasi. Prozesu natural bat eman behar da, eta helduko da neskak ere plazara Dantzari Dantza egitera irtengo diren eguna. Goizago edo geroago.

Parekidetasuna bermatzeko urrats hauek udalak bideratu dituen arren, herritarren artean ere izan da halako ardura bat? **I.L.:** Egon dira, tradizioz edo, betebeharreko zenbait baldintza. Eta dantzari batzuek azaldu dute hori aldatzeko beharra, sasoiotara egokitze beharra. Hala ere, prozesu guztia udalak

bideratu du. Denok ados egon gara aurten gauzatutako aldaketak modu naturalean eman behar zirela. Ezin dira gauzak indarrez egin, derrigortuta... Atzetik datozenek ez dituzte guk bizitakoak bizi.

M.N.: Hala da. Umeak ere bada-toz atzetik. Hori bestea era batera biziko dute dena. Dena naturaltasunez joango da eurentzat. Horixe da helburua.

Zeintzuk izan dira aldaketak? Tradizioz nola egiten da jaietako Dantzari Dantza?

I.L.: Deialdi zabala egiten zitzaien dantzari, gaztea eta ez-

“Emakumeak oso harro sentitzen dira neskak mutilen pare ikusita”

kongabea behar zuen izan, eta, herriko txistulariak aukeraketa egiten zuen. Aurrerantzean, aukeraketa horretan Iremiñeko dantzari batek eta San Lorentzeko beste batek ere parte hartuko dute. Parekidetasuna bermatzeaz gain, txistulariari ardura hori ere kendu gura izan diogu, eta dantzaria ez da zertan gaztea eta ezkongabea izan: emakumea, gaztea, heldua, ezkondua, ezkongabea... izan daiteke. Ez gabiltza tradizioa apurtzen, tradizioa egiten baino, sasoiotara moldatzen.

M.N.: Gainera, dantzari moduan jakin badakigu, adibidez, 13 urterekin goiz dela plazara irteteko. Izango du denbora aurrerago ere bai.

Eztabaida handia sortu da?

I.L.: Neskek parte hartzeak baino, denborak eragin du eztabaida. Nesken presentzia berehala ematea gura izan dute batzuek. Baina ez dugu ezagutzen plazan Dantzari Dantza osoa dantzatzen dakien neskarik.

M.N.: Ez da inor egon dantza taldeetan. Denbora behar da ikasteko, eta inork ez du atsegin derrigortzea. Gauzak astiro joan behar dira, eta 9-10 urteko dantzari ere ulertarazi, adibidez.

Zein da erronka?

I.L.: Gauzak normaltasunez ikustea, adibidez.

M.N.: Neska lez, jaietan Dantzari Dantza egiteko aukera izatea, askatasun osoz.

Talde mistoak errealitate izango dira Dantzari Dantzan ere?

I.L.: Gurean badaude. Plazan ere bai. Gizon batzuei kosta egiten zaie hori barneratzea, ikustea. Bestelakoa ikusi dute beti. Baina andrak harro sentitzen dira neskak mutilen pare ikusita.

M.N.: Hori da itxaropena. Nik neuk gura dut. Neska-mutilek, esaterako, nahastuta egiten dugu Gurutze Dantza plazan.

Dantzarien jantziek asko markatzen dute generoa, ezta?

N.M.: Hala da. Neskentzat zein mutilentzat dantzatzeko erosoak diren jantziak topatu behar direla uste dut. Gonagaz oso zaila da hanka altxatzea. Hala ere, oraindik asko dago eztabaidatzeko eta aztertzeko.

I.L.: Eztabaida hau izan genuen neskak sartu zirenean eta denek Dantzari Dantzari dagokion jantzia erabiltzea erabaki zen. Neskak bestela jantzita, dena hutsaldu egiten dela uste dut. Hala ere, eztabaida zabala da.

JAI AK!

Otxandio

2016ko UZTAILA



OTXAN

DIOKO

JAI AK

2016

Uztailaren

17tik

24ra



***Otxandioko Udalak jai
zoriontsuak opa deutsuez!***



OTXANDIOKO
UDALA



OTXAN

DIOKO

JAI AK

2016

OTXANDIOKO JAIEN EGITARAUA

UZTAILAK 16, zapatua GAZTE EGUNA

15:00 Urteroko gazte bazkaria plazan.

18:00 Gazte Olinpiadak plazan.

20:00 Batukotx batukadaren kalejira.

23:00 Gazte Asanbladak antolatutako kontzertuak Gaztetxean.

23:30 Herriko tabernariak antolatuta, mariatxiak kalean zehar.

UZTAILAK 17, domeka

12:00 Otxandioko txistularien kalejira.

12:30 Otxandioko presoek eskubideen aldeko elkarretaratzea plazan, Giza Eskubideen Batzordeak deiturik.

12:30 Ohiko Salve Regina abestuko da Santa Marina elizan, Oihandi abesbatzaren parte-hartzearekin.

13:00 Katalintxuk jaiei ongi etorria emateaz batera, Andikonako bonbardaketa eta osteko gerra garaia bizi izan zuten herritarrek botako dute txupina.

13:10 Urtero-urteroko ohiturei jarraituz, Danborradak kaleak alaituko ditu Musika Bandarekin batera.

17:00 Urteroko tute, mus eta briska txapelketa kontseilupean.

18:30 The Funes Troup Konpainiak "Funes Van" zirku-ikuskizuna eskainiko du haur zein helduentzat.

20:00 Gasteizko "Eguzkifole" gaitero taldearen kalejira.

22:30 Erromeria "Ezten Giro" taldeagaz

UZTAILAK 18, astelehena SANTAMAÑA EGUNA

12:00 Meza nagusia Santa Marinaren omenez Oihandi Abesbatzaren parte-hartzearekin.

12:00 Otxandioko musika bandaren kalejirak herriko txokoak alaituko ditu.

13:00 Herri kirolak Otxandioko plaza nagusian.

17:30 Profesionalen pilota partiduak Mañondoko pilotalekuan.
Banakakoa: Mendizabal III - Gorka
Profesionalak: Ezkurdi - Zabaleta / Altuna III - Gorka
Sarrera: 25€ (16 urtetik beherakoek debalde)

18:30 Izaro de Andres mallabiarak, bere bandak lagunduta, kontzertua eskainiko du Andikona Plazan.

20:00 Herriko haur eta helduak batzen dituen Urduri Dantza Taldearen ekitaldi berezia.

22:30 "Dantzadi" taldearen erromeria

UZTAILAK 19, martitzena UMEEN EGUNA

11:00 Umeentzako jolas erraldoiak eta tailerrak. Tailerretan gluten bako pizzak, kareta, eskulanak eta txapak egiteko aukera.

12:30 Arimen meza.

12:30 Otxandioko eskolako seigarren mailako ikasleek umeen eguneko txupina botako dute.

16:30 Jolas txokoa: adin guztietako haurrentzako puzgarriak plazan.

19:30 Bitsa jai erraldoia plazan.

UZTAILAK 20, eguaztena

11:30 Umeentzako puzgarriak herriko igerilekuan.

18:30 Bizikleta saltoen erakustaldia Nebera mendiaren magalean.

UZTAILAK 22, barikua

17:00 "Lorrazak" memoriaren ibilbidearen bisita gidatua gaztelan.

18:00 Andikonako Foroak adostutako testua onartzeko Ezohiko Bilkura.

18:30 "Lorrazak" memoriaren ibilbidearen bisita gidatua euskaraz.

20:00 Frankismoaren biktimen oroimenez ekitaldia.

22:30 Koadrilen arteko play-backa.

UZTAILAK 23, zapatua SAN MARTIN

09:00 Etxeko txiki eta gaztetxoentzat Peska-txapelketa Mataderoan.

12:30 Otxandioko Urbiribil Dultzainero taldearen kalejira.

14:00 San Martinen paella txapelketa, bolo txapelketa eta zuzeneko musika.

19:30 Gasteizko Akelarre txaranga kalerik kale.

23:00 Eratu eta Kaotiko taldeen kontzertuak.

02:30 Garilak 26 berbenarekin dantza eta gaupasa egiteko aukera ederra.

UZTAILAK 24, domeka

07:30 Diana eta Kalejira.

08:00 Sokamuturra.

12:00 Meza nagusia.

13:00 Omenaldia 1926. urtean izandako bonbardaketan hildakoei, Andikona Plazan, Andikona Foroak adostutako testua irakurriko da.

13:45 Ohiko limonada banatuko da plaza nagusian.

14:00 Otxandio eta Araiako bandek herriko kaleak alaituko dituzte.

19:00 "La Jodedera" musika taldeak musika bidaia bat proposatuko du Euskal Herriko kantuen bertsio kubatarra joaz.

20:00 Eusko Labeleko pintxoak dastatzeko aukera izango da herriko plazan.

22:30 Kupela taldearen berbenarekin jaietako azken doinu eta dantzez gozatzeko aukera.

00:30 "Agur Santa Marina" abestuz jaiei amaiera emango zaie herriko plazan.

Harategia



Gaztañeta

Artekale, 25 OTXANDIO - Bizkaia · Tel.: 945 450 846

Urdaitegia

Rosa Mari

Estankoa egunkariak aldizkariak

Plaza Nagusia 9
Otxandio
Tel.: 945 45 00 33

ETXEBARRI

NEKAZALTURISMOA



OTXANDIO
Olaetara bidean
Tel.: 945 450 123
Tel.: 676 947 523

- Antzinako jauregia.
- 6 logela bikoitz bainugelarekin, ile-lehorgailuarekin eta telebistarekin.
- Gela bat ezinduentzako egokitua.
- Egongela, telebistarekin eta mahai-jokoekin. Wifia.
- Sukaldea eta garbigailua erabiltzeko eskubidea.
- Aparkalekua eta lorategia, barbakoa, mahai eta jesarlekuekin.

Katalintxugaz batera emango diete ongietorria santamañei

Kanpandorretik jaitsiko dute Katalintxu herritarren aurrean aurkezteko

> JAIK A.B.

Otxandio musika banda karlistako banderaduna izan zen Katalintxu. Gordobil auzoan jaiotakoa, 1886an. Emakume ederra ei zen, otxandiarrek ondo ezagutzen duten *Katalintxu lora ederra* kantak dioen moduan. Emakume hura ekarriko dute gogora, aurten, santamañetan. Eta ez edozein modutan. Kanpandorretik jaitsiko da Katalintxu, jaiet ongietorria eman eta otxandiarren aurrean aurkezteko. Uztailearen 17an izango da hori, 13:00etan. Ondoren etorriko da txupina jaurtitzea, eta jai giroak eztanda egingo du herriko bazterretan.

Katalin Arruabarrena Balanzategi 1886ko uztailearen 23an

jaio zen, Otxandion. Bertokoa zen Pedro Antoñana Garamendigaz ezkondu zen, eta 1908an Gallartara joan ziren bizitzera.

Katalintxu aurkeztu eta gero, txupina jaurtiko dute

Pedro senarrak udaletxean egin zuen lan, eta herriko txistulari moduan aritu zen. Herri hartan hil zen Katalin, 1977an.

Aurten Katalintxu izan da. Hala ere, ikusteko dago hurrengo urtean ere bera izango den santamañei ondoetorria eman- go dien pertsonaia. Izan ere,

asmoa da urtean-urtean herriko pertsonaia desberdin bati ematea ohore hori. Halaxe azaldu dute Jai Batzordekoek.

Danbor hotsak

Txupina jaurtita, urteroko hitzorduari eutsi eta danbor hotsak hartuko dituzte kaleak. Musika bandak alaitutako danborrada 13:10ean abiatuko da herriko kaleetan zehar, eta gero, karta-jokoekin dute hitzordua eginda otxandiarrek. Tute, mus eta briska txapelketak izango dira kontseilupean. Gasteizko Eguzkifole gaitero taldeak alaituko du iluntzea. Gaugiroa, berriz, Ezten Giro plaza taldeak berotuko du. Biharamuna egun handia dute: Santamaña eguna.



Uztailearen 17an emango diete behin betiko ondoetorria santamañei Otxandion.



Euskal Herriko eta Kubako doinuak nahasten ditu La Jodedera taldeak.



Izaro de Andres kantautore mallabiarrek Otxandion joko du.

Musikaz eta jaiaz gozatzeko aukera zabala dakarte santamañek

Uztailearen 16tik 24ra bitartean iraungo duen egitaraua prestatu dute

> MUSIKA A.B.

Jai giroaz gozatzeko egunak dituzte aurretik, Otxandion. Festaz eta musikaz gozatzeko egunak, eta, horretarako, eskaintza zabala dakarte santamañek. Musika, antzerkia, kirola, umeentzako jolasak, sokamuturra, urtez urte hutsik egin gabe dirauten ekitaldiak... Haur, gazte zein heldu, denek izango dute beraientzako tartea santamañak ospatzeko prestatutako jai egitarauan.

La Jodedera eta Izaro

Dantzarako eta ondo pasatzeko gonbita egingo du Euskal Herriko eta Kubako doinuak nahasten dituen La Jodedera taldeak; aldarrikapenez bustitako abestiak erabiliko dituzte horretarako. Izaro de Andres kantautore

'Funes Van' zirkua ikuskizkuna eskainiko dute uztailearen 17an

Eratu eta Kaotiko musika taldeek kontzertua eskainiko dute

mallabiarrek, berriz, bestelako proposamena egingo du. Irai-lean disko berria kaleratuko duen abeslariak bere musika banda izango du lagun. Eratu eta Kaotiko taldeek eskainitako kontzertuetan doinu gogorra- goak izango dira entzungai.

Musika aukera zabal hori Kupela musika taldeak borobil- duko du. Beraiek eskainiko dute jaietako azken doinu eta dantzez gozatzeko aukera.

Erromeri giroa eta zirkua

Ezten Giro eta Dantzadi plaza taldeek izango dute erromeri gauak berotzeko ardura; Akela- rre txarangak eta Batukotx batukadak, berriz, kale bazterrak jarriko dituzte dantzan. Zirkua ere hurbilduko da egunotan. Haur zein helduentzat *Funes van* ikuskizuna eskainiko du The Funes Troup konpainiak.

Gazte Eguna, Santamaña Eguna eta Umeen Eguna izango dira aurten ere; San Martinen egindako jaiak ere bai. 'Agur Santa Marina' abestu artean badago zer ikusi eta zer entzun.

URREJOLA
okindegia

ale eta ongarrien biltegia

Artekale 31
Tel.: 945 45 00 93
Otxandio

KOROSTONDO
janari denda

Artekale 19 OTXANDIO
Tel.: 945 45 00 94

Taberna LORA

Artekale 16 - OTXANDIO
Tel.: 677 568 580
945 450 159
lorataberna@gmail.com

danoena

JAIETAN EGUNERO
bokatak
hanburgesak
plater konbinatuak
eta pizzak

Plaza nagusia, 5
OTXANDIO
Tel.: 945 450 248

KOSKA
TABERNA

Tel: 945 46 14 80
Plaza Nagusia, 6
OTXANDIO

Duela 80 urte kolpistek herritarren aurka egindako bonbardaketa oroitu dute jaietan

1936ko aire erasoaren lekukoen izenean, Marina Berroategiak eta Maria Angeles Ortiz de Zaratek jaurtiko dute txupinazoa



Lehendakaria Otxandion egon zen, ofentsibaren aurkako erresistentzia antolatzen.



Udaletxe ingurua, frankistak sartu ziren sasoian.

> OROIMENA Markel Onaindia 1936ko uztailearen 22an zerua infernu bilakatu zen Otxandion. Herria jaietan murgilduta zegoen, eta faxisten hegazkinek herrigunea bonbardatu zuten, Andikonako plaza batez ere. 61 hildako eragin zituen erasoak, eta 45, gutxienez, zibilak izan ziren; horietatik 25 bat, umeak. Sarraski hura egin zutenetik 80 urte beteko dira aurten, eta data hori dela-eta, bonbardaketa oroitu dute jaietan.

Bonbardaketaren egunean bisita gidatua bat burutuko dute

Panel batzuk ipini, eta gerora begira hantxe geratuko dira

Jaietan hasiera bera bonbardaketaren gomutak markatuko du. Izan ere, erasotik bizirik irten ziren bi lekukok botako dute txupinazoa, Marina Berroategiak eta Maria Angeles Ortiz de Zaratek. Bizirik dauden lekukoen artean gazteena da Berroategia –hiru hile zituen erasoaren egunean–, eta nagusienetakoa Ortiz de Zarate. “Guztien ordezkari lez omentzea da asmoa”, esan du Irati Axpe zinegotziak.

Txupinazoarena ez da udalak gaiari helduta antolatuko duen ekintza bakarra. Bonbardaketa egunean, hilaren 22an, bisita gidatua bat burutuko dute, 17:00etan gaztelan eta 18:30ean euskaraz. Bigarren horretan bonbardaketako zazpi lekukok berba egingo dute, bisitak barnebiltzen dituen zazpi guneetan, hain zuzen. Gainera,

informazio panel batzuk ipini ditzuzte, eta etorkizunera begira ere hantxe geratuko dira ipinita, erabilgarri. “Andikona bonbardatu zen egunetik frankistek herria hartu zuten unera arteko historia kontatzen da, zazpi gunetan kokatuta”, azaldu du Axpek. Lehendakaria ere Otxandion egon zen, frontea antolatzen, eta gertaera hori ere jasotzen da. Ibilbidearen ostean ekitaldia egingo da, eta lekukoen, gudarien, errefuxiatuen, edota emakumeen ikuspuntua eskainiko dute. Udal adierazpena ere irakurriko dute, ezohiko osoko bilkuran onartutakoa.

Salasen izendapena Angel Salas jeneral urduñarrak zuzendu zuen bonbardaketa, eta bere sorterrian ohorezko herritar lez izendatua dago. Axperen arabera, izendapen hori kentzeko erabakia hartuko du Urduñako Udalak, Otxandioko ekitaldiekin lotuta.

Zibilak jomuga Gutxi ikertu eta berba egin da Otxandioko bonbardaketaz, eta Jon Irazabalek eta Zigor Olabarririk egindako ikerketa lanak dira sendoenak. Altxamendua gertatu eta lau egunera egin zuten erasoak, eta urte askoan kontrakoa saldu izan bada ere, zibilak izan zituen jomuga. Helburua ez dago argi; hipotesiek Legutien erasotzeko pauso lez edota Bizkaia eta Gipuzkoa belurtzeko ekintza lez azaltzen dute. Europar zibilien aurka egindako lehen aire erasoak izan zela esan izan da, datua erabat ziurra ez den arren. Zibilien aurkako lehen bonbardaketa Espainiako tropek –Franco tartean– egin zuten Arrifeko gerran (Maroko), eta metodo gupidagabea Otxandiora ekarri zuten. Gero, Durangon eta Gernikan eman zitoten segida.

HONTZA EXTREM
DENONTZAKO ABENTURA PAKETEA

Tel.: 633 468 947
www.hontzaextrem.com

Natura - Euskara - Kirola - Pertsona

ONDO PASAU JAIXETAN!!!!

Artetale 17, Otxandio
945 45 03 01

ITZARRI natura

www.koikiliaterpetxea.eus

koikili aterpetxea

JAIIAK!

Zornotza

2016ko UZTAILA



Jai zoriontsuak opa deutsueguz!

 **ametx**
kultura, enpresa eta kirolak



ZORNOTZAKO JAIEN EGITARAUA

Uztailak 15, ostirala

20:00 Herriko plazan. Pregoia, txupinazoa eta kalejira, Trapagaran, Sestao eta Amorebieta-Etxanoko erraldoi eta buruhandien konpartsak, gaitero eta txistulariak.

20:30 Kalbarioa-Euskal Herria enparantzan. Kaleko musika BROKEN BROTHERS.

22:30 Zubiondo parkean. Kontzertua: KEN ZAZPI.

23:00 Txosnetan. Erromeria. OXABI.

Uztailak 16, larunbata

11:00 Herrian zehar. UDAZKEN taldearen kalejira.

Goizean, Larrean. KARMENGO JAIA. Meza, bertsolariak, UDABARRI dantza taldea, eta Euskal erromeria TRIKI PIU taldearekin. Ostein, Larreako landetan. HERRI KIROLAK

09:00 Ibaizabal errekan. UMEEN ARRANTZA LEHIAKETA.

18:00 Amorebieta IV. frontoian. PILOTA PARTIDA PROFESIONALAK.

19:00 Zelaieta parkean. DJ TOPAKETA.

20:00 Herriko plazan. XIC DE GRANOLLERS. Castellers.

23:00 Zubiondo plazan. Camp Berbena. LONDON ORKESTRA.

23:00 Txosnetan. Kontzertua. YELLOW MARSUPIALS / KOP.

24:00 Txosnetan. Alkoholemia karpa.

Uztailak 17, igandea

9:30 Urbano Larruzea kalean. XXXV. XAKE TXAPELKETA Agustín Zamakona Memoriale.

11:30 Herriko plazan. UMEENTZAKO ESKU PILOTA JOLAS PARKEA.

12:00 Jauregibarria parkean. ARKU-TIROA.

18:00 Amorebieta IV frontoian. ZORNOTZAKO II. MASTER KAIOLA.

19:00 Gazteen barraka gunean. DJ XAIBOR.

20:00 Gernika plazan. Kale antzerkia, LA CONGA. Trapu zaharra.

22:00 Zelaieta parkean. Kontzertua. LABOA JAZZ Iñaki Salvador, Ainara Ortega, Maria Berasarte eta Anjel Unzu.

Uztailak 18, astelehena

17:30 Zubiondo plazan. KOADRILEN ARTEKO GYMKHANA.

21:30 Herriko plazan. BERTSOLARIAK ARKAITZ ESTIBALLES BEÑAT UGARTETXEA ONINTZA ENBEITA ALAIA MARTIN (Euria eginez gero, Zornotza Aretoan)

Uztailak 19, asteartea

17:00 Zelaieta parkean. ALDI BEREKO 50 XAKE PARTIDA.

18:00 Zelaieta Parkean. Umeentzako antzerkia ingelesez. KIDS AND US. Antzerkia ingelesez.

18:30 Ibaizabal errekan. KOADRILEN ARTEKO PIRAGUA JAITSIERA

19:00 Amorebieta IV Frontoian. PALA PARTIDAK. Herriko Txapelketaren finalerdiak.

22:00 Herriko plazan. Nazioarteko dantzak CAUSANACUNCHIC. Ballet Andino de Cuenca (Ecuador) (Euria eginez gero, Zornotza Aretoan)

Uztailak 21, osteguna

19:00 UMEENO TANBORRADA.

Uztailak 22, ostirala

Egun guztian, txosnetan. KOADRILEN EGUNA Koadrilen bazkari herrikoia eta hainbat ekintza.

18:00 Zubiondo parkean. BIZIKLETA EGUNA.

19:00 Amorebieta IV Frontoian. PALA PARTIDAK. Herriko Txapelketaren finalak.

21:00 Zelaieta parkean. TXISTULARIEN XVII. KONTZERTUA. Artista gonbidatua: Keu Agirretxea.

23:00 Zubiondo plazan. Kontzertua. KIKO VENENO.

23:00 Txosnetan. Kontzertua. STEEPERS / ARKADA SOCIAL

Uztailak 23, larunbata

Goizean, Zubiondo parkean. MARMITAKO LEHIAKETA. Amantala eskuetan gaixotasun arraroekin.

Egun guztian, Txolon futbol zelaian. ERRUGBI EGUNA

09:00 Boroa poligonoan. XCII. USAKUME TIROKETA

11:00 Gure Kirolak bolatokian. UMEENTZAKO BOLO TXAPELKETA.

18:00 Amorebieta IV frontoian. ZORNOTZAKO II. MASTER KAIOLA.

21:00 Gure Kirolak bolatokian. KARMENETAKO VI. BOLO TXAPELKETA.

22:45 Zubiondo plazaN. Kontzertua. EL CONSORCIO

23:00 Txosnetan. LAS TEA PARTY.

Uztailak 24, igandea

09:00 Boroa poligonoan. XCI. USAKUME TIROKETA herrikoia.

11:00 Jauregibarria. ONTZI-MODELISMOAREN ERAKUSTALDIA.

12:00 Zornotza Aretoan. Kontzertua. BIOS ORKESTRA Ongintzazko kontzertua. Stop Sanfilippo.

12:00 Herriko plaza- San Miguel Kalea. AMOREBIETA-ETXANOKO V. MILIA.

17:30 Amorebieta IV frontoian. KARMENETAKO IX. ESKU-PILOTA TXAPELKETA.

22:00 TANBORRADA.

22:30 Txosnetan. Kontzertua. ZEINKE / DJ JOTATXO.

23:00 Zubiondo parkean. Kontzertua. DELOREAN.

Uztailak 25, astelehena

Goizean, Zelaieta parkean. BASERRITARREN AZOKA.

Egun guztian. AITITE-AMAMEN JAIA: meza, aureskua, erromeria.. Izena emateko: Nafarroa zentroa.

10:00 TXIRRINDULARITZA Junior mailako Euskal Herria txapelketa. Irteera eta helmuga: Nafarroa kalea.

17:30 Amorebieta IV frontoian. KARMENETAKO IX. ESKU-PILOTA TXAPELKETA.

18:00 Zelaieta parkean. KOADRILEN ARTEKO HERRI KIROLAK.

18:30 Urritxe Futbol Zelaian. SDA TALDEAREN AURKEZPEN-PARTIDA. V. Amorebieta-Etxanoko Udala Saria.

22:30 Jauregibarria. SU ARTIFIZIALAK. Piroteknia Zaragozana

Uztailak 26, asteartea

11:30 Zelaieta parkean. UME ETA GAZTEENTZAKO JOLAS PARKEA.

19:00 Zubiondo plazan. Umeentzako antzerkia CIRKUSZ RUPT El gran Dimitri.

21:00 Herriko plazan. Dantza. FRESH COOL Tio Teronen semeak.

Uztailak 27, asteazkena

19:30 HERRIKO TALENT SHOW 60ko hamarkada.

20:45 Herriko plaza. TALENT SHOW ETA CHALLENGEKO SARI BANAKETA

21:00 Harrison -Luis Urrengoetxea - Euskal Herria plaza - Kalbarioa ELEKTRO TXARANGA.

21:00 Andra Mari plazan. Zezilia Gallartzagaitia Kaleko musika. BROKEN BROTHERS.

22:00 Zubiondo plazan. Kontzertua. AUGIE BURR & THE ELVIS TRIBUTE BAND

Stop Sanfilippo elkartearen aldeko kontzertu solidarioa

Uztailaren 24an herriko musikariek kontzertua eskainiko dute BIOS orkestragaz batera, Txaber Fernandez zuzendariaren esanetara

> KONTZERTUA J. Guenetxea
Jaietan ere elkartasuna adierazteko aukera izaten dela erakutsi dute Zornotzan. Izan ere, herriko musikariek, BIOS orkestra bidelagun dutela, kontzertu benefikoa eskainiko dute uztailearen 24an, Zornotza Aretoan. Ekimenaren helburua Sanfilippo Euskadi VAAS elkartearen aldeko diru-bilketa egitea da. Kontzertu solidario hau 12:00etan eskainiko dute. Gaixotasuna dutenen familiek 2013ko abenduan sortu zuten elkarte hau, sindromearen ikerketa sustatzeko eta terapiarako dirua lortzeko.

Herriko musikariek bat egin dute egitasmo honegatz. Agate Amilibia (biolontxelo), Elisene Alzola (biolina) eta Xabier Lijo (oboea) musikariek BIOS orkestra izango dute lagun. Txaber Fernandez izango da

kontzertu berezi honen zuzendaria.

Athleticeko kamisetak
15 eurokoa izango den sarre-
ragaz batera, hainbat sari era-
kargarri eskuratzeko aukera
izango dute kontzertura berta-
ratzen direnek. Athletic Clu-
beko jokalariek sinatutako
kamiseta eta baloia zozkatuko
dituzte entzuleen artean. Gai-
nera, Fito Cabralesen txapel bat
ere zozkatuko dute. Kontzertu
solidariorako sarrerak Kapi
eta Charanga arropa-dendetan
egongo dira salgai.

Abesbatzen ekimena
Zornoza eta Abeskimu koralei
esker sortu da kontzertu hau
antolatzeko ideia. "Ametx eta
Zornotzako Udaltzainguan
esker izan da posible buru-
tzea", azaldu dute.



BIOS orkestrak Zornotzan egiten ditu entseguak.

EGIOZU ANBOTO ASTEKARIKO HARPIDETZA LAGUN BATI!

Plateruena jabetxean
2 pertsonentzako asteburuko menua
zozkatuko dugu harpidedun berrien artean



Lekuan lekuko harpidetza

anboto 
komunikabideak

www.anboto.org
anboto@anboto.org
945 608 233

 Anboto
Komunikabideak  @anboto



Inguruetako lehenengo Euskal Kanta Jaialdian jendetza batu zen.

Zornotzan euskal kulturaren udabarria izan zen dantza taldea

50. urteurrenean, jaiei hasiera emango dien txupinazioa botako du Udabarrik

► DANTZA J.Derteano

Udabarri dantza taldeak Karmen jaiei hasiera emango dien pregoia irakurri eta txupinazioa jaurtiko du hurrengo barikuan. Gaur egun dantzetara mugatzen dira batez ere, baina sorreran eta ondorengo urte askotan, Zornotzan euskal kultura sustatzen, tradizioak berreskuratzen eta euskalgintzan aritu ziren, besteak beste.

Frankismoaren neguan sortu zuten dantza taldea, 1966an. Hala ere, urte haietan, neguko elur geruzaren azpitik euskal kultura berpizten ziharduten mugimenduak ernatzen zebiltzan Euskal Herrian. Neguaren osteko udabarria iragartzen zuten ahalegin haiek. Horregatik deitu zioten Udabarri Zornotza-ko dantza taldeari. Ez baitzen dantzarako bakarrik sortu: “Aurretik beste dantza talde bat ere egona zen, eta ‘Zergatik ez berreskuratu?’ pentsatu genuen. Baina hori, zelanbait esanda, aitzakia bat zen. Euskal kulturaren eta ohituren alde lan egiteko sortu genuen”, gogoratu du Jose Mari Agirre (1948, Zornotza) taldeko sortzaileetako batek eta gaur egungo presidentek.

‘Dantza munduan murgilduta eman zituen lehenengo pausoak, baina zein kultur ekintza izan ote da Udabarrik ikutu ez

duena? Seguruenik bat ere ez’, jasotzen du 25.urteurrenaren harira dantza taldearen ordura arteko historia jasotzeko argitaratu zuten liburua: “Azokak, mendi irteerak, kantaldiak, konferentziak... denetarik egin izan dugu”, dio Agirrek.

Lehen urteetan Karmeldarrekin eta Larreako nagusi Aita Santi Onaindiak lagunduta, Karmeldarren komentuan eta gaur egun Etxe Gorria deritzon etxean aurkitu zuten entsegutarako lokala.

Hasieratik, eta urte luzez, zornotzarren artean erantzun eta atxikimendu handia jaso zuen dantza taldeak: “Ta-ia herri osoa pasatu da hemendik. 25. urteurrenean 400 edo 500 bat lagun batuko ginen”.

Udaberriaren osteko udari bide emateko lan egin zuten. Batek baino gehiagok oraindik gogoan izango dute 60ko hamarkada amaieran antolatutako jaialdia. Euskal kantungintza berria sortu berria zen, eta baita Ez Dok Amairu taldea ere, eta inguruetako lehenengo jaialdia

“Euskal kultura eta ohituren alde lan egiteko sortu genuen”

Zornotzan egin zuten Lourdes Iriondo, Benito Lertxundi eta enparauekin: “Jende asko batu zen. Herrikoa zein kanpokoak. Itzela izan zen”.

Euskalgintzan ere jardun zuten. Zornotzako herrian lehenengo euskarazko klaseak Udabarri taldearen inguruan eman ziren Aita Santiren eskutik: “Euskara klase libreak izan ziren, gura zuten denek parte hartzekoak. Orduan ez baitzegoen horretarako aukerarik”.

Guardia Zibilen koartela herrian, tentuz ibili beharra izan zuten sarritan; 1968ko Euskal Jaian esaterako. Guardia Zibila abisu eman zien Ikurrinaren alboan Espainiako bandera ere jartzeko. Ikurrina bakarrik jarri zuten, baina ez beraiek, Ipar Euskal Herriko etorritako dantza talde batek baino. Horrela, Guardia Zibila ekitaldira bertara kargu hartzera etorri zitzaizkion, bazuten aitzakia: “Haiek jarri dute, eta ikurrina erabiltzeko autorizazioa izango dutenez... guk ezin dugu ezer egin”, esan zien Agirrek. Hala ere, hurrengo egunean koartelera deklaratzera joan behar izan zuten.

Antzinako eta galtzorian zeuden hainbat ohitura berreskuratzen ere lan sakona egin du Udabarrik; Agate Deunaren koplak abestea, esaterako: “Gaur



Lehen urteak; Udabarriko dantzari gazteak Euskal Jaia ospatzen.



Udabarri dantza taldeko dantzariak Edinburgon (Eskozia).



25. urteurrenaren harira antolatutako jaiko irudia, 1991n.

egun, ikastetxeetatik-eta, esaterako, ikasle asko irteten dira koplak abestera, baina orduan ia galduta zegoen ohitura zen herrian”.

Eta, zelan ez, dantzan eta dantzan aritu dira, baita Europan ere: Dax-en (Frantzia), Eskozian eta Herbehereetan egon izan dira. Nazioarteko dantza taldeak ere ekarri izan dituzte Zornotzara.

Gaur egun, nagusi eta gazte, 80 bat kide osatzen dute Udabarri: “Apur bat eskas gabiltza”,

onartu du Agirrek. Erreleboa falta zaie, batez ere gaztetxoak. Udazkena udaberri berri baten zain. Belaunaldiz belaunaldi eman beharreko dantzarako transmisioa berpiztean egon daiteke aupada berri baterako gakoa.

Edozelan ere, 50. urteurrena jaialdi bategaz herriarekin ospatzeko asmoa dute. Hori lantzen dabil beren beregi dantza taldeko batzorde bat. 2016/17 ikasturtean izango da, seguruenik abenduan.

Z@S
informatika

ORDENADOREAK
OSAGARRIAK
KONPONKETAK
MANTENIMENDUA

ENPRESETARAKO ZERBITZUA

Tel.: 94 630 12 12
info@zasinformatika.com
Gregorio Mendibil 9 behea
(Amorebieta-Etxano)

GANBERA
interiorismo

www.ganberainteriorismo.es

Barneko proiektuak eta eraberritzeak

Salmenta: altzariak, tapizak, dekorazioa, alfonbrak, gortinak, paperak...
Zezilia Gallartzagaitia, 13 · Zornotza · 946 732 822



Danborreroen familia argazkia joan zen asteko entseguan.

“Saltsa eta energia pixka bat ekarri dut danborradara”

Danborradari bultzada emateko Joe Gonzalez herriko musikariari zuzendari izateko ardura eman diote. Jo eta su dabilta entseguetan

> DANBORRADA J. Guenetxea Beteranoak dira entsegu-
ra lehenengo heldu direnak.
Apurka-apurka gazteak ere
heldu dira. Zerrenda irakurri,
eta bakoitzak bere danborra
hartu du. Entsegu gutxi geldit-
zen dira uztailaren 24ra arte,
eta lan handia dago egiteko.
Danborradari eman gura dio-
ten bultzadak ilusioa piztu du
parte-hartzaileen artean. Joe
Gonzalez zuzendari hasiberria-
ren jarraibideei fin-fin jarrai-
tzen diete. Ez da gutxiagorako.
Gonzalez Doctor Deseoren
saxofonista da, eta goi mailako
musikariekin dihardu mundu
guztiko oholtzetan.

Zelan sortu da danborradari
bultzada bat emateko asmoa?
Danborradak urteak daramatza

martxan. Hala ere, azken ur-
teotan gainbehera bat egon da.
Agian, jendeak ez duelako pen-
tsatzen urte batetik bestera zer
hobetu daitekeen. Horregatik,
danborradaren barrutik deial-
di bat egin zen, eta batzorde bat
sortu. Aurrerapausorik handie-
na batzorde horren sorrera izan
da. Danborrada osatzen duten
musikari-multzo ezberdinen or-
dezkariek talde horretan parte
hartzen dute. Horrez gainera,
batzorde horrek deitu egin zi-
dan danborrada zuzentzeko, au-
rreko zuzendariak dimititu egin
zuen eta. Herrikoa izanda, ezin
nuen ezetz esan.

**Zein da danborradari egin dio-
zun ekarpena?**

Nik ideia musikalak ekarri
ditut, beteranoentzat gauza be-

rriak egin... Saltsa pixka bat eta
energia ekarri dut. Nire ekarpe-
na, batez ere, alde musikaletik
izan da. Herriko musikariak
ere parte hartzera gonbidatu
ditugu. Musika eskola ere hor
dugu, ikasle askogaz, eta beste
musikari batzuk ere badaude
herrian.

**Zein nobedade dakar aurten
danborradak?**

Errepertorioa murritztu dut.
Gainera, abesti bakoitzari ukitu
berezi bat ematen saiatuko gara.

**Zenbat jendek hartuko du par-
te?**

70 lagunetik gora ditugu danbo-
rrarien taldean. Gainera, bere-
zitasun handi bat dugu: kañe-
roak ere baditugula. Kainoiak
su egiten du, eta, horretarako,



Joe Gonzalez danborradaren zuzendaria da.

Guardia Zibilaren baimen bere-
zi bat eskatzen dugu. Antortxe-
roak, kantinerak, zaldidunak...
Berezitasun bat da, orain 40
urtetik, emakumeek eta gizo-
nek bat egiten dutela danborra
jotzen, ezelango arazorik barik.

**Tradizio handia dago danbo-
rradan?**

Bai, askok 40 urtetik gora dara-
matzate parte hartzen.

**Danborrada ezagutzen ez due-
nari, zer esango zenioke?**

Datorrela ikustera. Herri osoa
pozik egoten da. Lehen uztaila-
ren 26an egiten zen, eta orain
24ra aldatu dugu, giro gehiago
egoteko.

IZAR
CUTTING TOOLS

izartool.com

San Migel Duda auzoa | AMOREBIETA-ETXANO
Tel.: 946 730 033

Ondo pasa Jaietan!

kanbio
J A T E T X E A

ASTE
BITARTEKO
MENUA,
ASTEBURUKO
MENUA,
MENU BEREZIA
ETA KARTA

Ondo pasa
jaietan!

San Migel Duda auzoa | AMOREBIETA-ETXANO
Tel.: 946 730 033

Kiko Veneno, Delorean eta Ken Zazpi arituko dira Karmenetan

Zuzeneko musika eskaintza oparoa dakarte Zornotzako Karmen jaiek

> MUSIKA Itsaso Esteban
Zabala eta anitza da Zornotzako Karmen jaien programazioaren zuzeneko musika eskaintza. Bakoitzak bere esparruan, jarraitzaile asko dauzkaten taldeek giroa dituzte Zornotzako jaiak. Esperientzia handiko Kiko Veneno edo El Consorcio musikarien, zein Las Tea Party moduko sortzaile gazteen erritmoak dantzatzeko aukera emango dute Zornotzako jaiek. Askotariko adin eta gustuko herriarrei zuzeneko musika gozatzeko eskaintza egitea helburu hartuta programatu dituzte kontzertuak.

Txupinazoaren egunean, uztailearen 15ean, 22:30ean, Zubiondo parkean Ken Zazpi gerrikarren kontzertua entzuteko aukera egongo da. Horren aurretik, 20:30ean hasita, Broken Brothers iruñarrak kalez kale ibiliko dira blues eta jazz doinu dantzarriak kalbarioan eta

Euskal Herria enparantzan zehar eskaintzen.

Yellow Marsupials talde durangarra ere zuzenean arituko da Karmen jaietan. Talde horrek, Zornotzako Udalak Durangaldeko beste udal batzuekin elkarlanean antolatzen duen Maketa Lehiaketaren aurtengo edizioan eskuratu zuen Zornotzako jaietan aritzeko saria. KOP talde katalanaren aurretik joko dute, uztailearen 16an, 23:00etan, Txosnagunean.


Laboa Jazz

Mikel Laboaren lanaren miresle diren lau musikariren Laboa Jazz emanaldia entzuteko aukera ere eskainiko du Zornotzako jaietako egitarauak. Inaki Salvador pianista, Ainara Ortega eta Maria Berasarte abeslariak eta Anjel Unzu gitarrista arituko dira Laboaren kantak interpretatzen, uztailearen 17an, Zelaia parkean, 22:00etan.

Jailetako programazioak jasotzen duen musika eskaintza zabal eta anitzaren adibiderik garbiena uztailearen 22ko koadrilaren eguneko musika egitaraua da. 21:00etan, txistu kontzertuaren XVII. edizioa egingo dute Zelaia parkean, eta Keu Agirretxea musikaria gonbidatu dute emanaldi horretara. 23:00etan, bestalde, Kiko Veneno entzuteko aukera egongo da Zubiondo plazan. 1979an Camaronen *La leyenda del tiempo* diskoan kolaboratu zuenetik, Sevillako musikariak hamarkadak daramatza rocka eta flamenkoa uztartzen.

Bestelako doinuaren zaleak txosnetan elkartuko dira uztailearen 22an, 23:00etan, Steerpers Zornotzako taldea eta Arkada Social entzutera.

Uztailearen 24an, 23:00etan, Zubiondo parkean joko du *Muzik* izeneko seigarren diskoa kaleratu duen Delorean talde zaraustarrak.



Uztailearen 22an Zubiondo plazan joko du Kiko Veneno sevillarrak.



Seigarren diskoa kaleratu berri du Deloreanek, eta uztailearen 24an arituko da.



Uztailearen 19an eskainiko du Markeliñek 'Crusoe'.

Markeliñe talde zornotzarraren kale antzezlan berria, herriko plazan

Estreinu berri duen 'Crusoe' obra berria eskainiko du Markeliñek jaietan

> ANTZERKIA Itsaso Esteban
Euren herriko jaietan aritzeko aukera izango dute Markeliñeko antzerkigileek, uztailearen 19an. Herriko plazan eskainiko dute *Crusoe* lan berria, 21:00etan. Daniel Dafoek XVIII. mendean idatzi zuen naufragoen istorioa oinarri hartuta, "Crusoe berezi bat sortzea" gura izan du Markeliñek obra berri honetan. Crusoeren biziraupenaren kontakizunari gaur egungo munduko hainbat errealitate txertatu dizkio Markeliñek: "Turismoak eragiten dituen kalteak, itsasoaren ku-

tsadura, etorkinei egiten diegun harrera..." esaterako.

Zuzeneko musikak ematen dio kutsu berezia kale antzezlari honi. Roberto Castro musikariak hainbat instrumentu jotzen ditu Zornotzako antzerki taldearen ikuskizun berrian, eta soinu efektuak ere egiten ditu: itsasoarena, animaliena, Crusoeren pentsamenduena...

Trapu Zaharra antzerki konpainia ere arituko da Zornotzako jaietan. Uztailearen 17an, Santi Ugalde eta Maribel Salas aktoreek *La Conga* eskainiko dute, 20:00etan, Gernika plazan.

Umore beltzeko ikuskizuna da, afiliatu asko galdu dituen sindikatu bateko ordezkariak protagonista dituen.

Umeentzako antzerki emanaldiak ere badaude Zornotzako jai egitarauan: uztailearen 26an, adibidez, *El gran Dimitri* eskainiko dute, Zubiondo plazan, 19:00etan.

Kaleko antzerki emanaldiak ezezik, bestelako ikuskizunak ere izango dira Zornotzako jaietan. Uztailearen 16an, adibidez, Granollers hiriko castellersak ikusteko aukera izango da, 20:00etan, herriko plazan.

Azkonizaga

Ortuzar, 1 · Izurtza (Bizkaia) · Tel./Faxa: 946 810 652
azkonizaga@azkonizaga.com
www.azkonizaga.com

consulta HAR
MANU ACEVEDO
Fisioterapeuta eta osteopata

Jarri zure osasuna profesionalen esku

FISIOTERAPIA
MASAJEAK - ESKU-TERAPIA - SENDATZE FUNTZIONALA - ELEKTROTERAPIA

OSTEOPATIA
ESTRUKTURALA - ERRAIETAKOA - BUREZURREKOA

E.P.T.E. ELEKTROLISIA KONTROL EKOGRAFIKOAREKIN

Konbenio, 6 behea 48340 AMOREBIETA Tel.: 946 300 713
www.consultagihar.com

60ko hamarkadako artistak protagonista Santanatxu eguneko Talent Show-an

Karrozen desfilearen ordezkio, jaietako ekintza berria antolatu dute aurten, uztailearen 27rako



Zornotzako Gazteek antolatu dute, azken urteotan, Talent Showa.



16 urtetik gorako zornotzarrak gonbidatu dituzte lehiaketan parte hartzera.

> EGITARAUA Itsaso Esteban
Karrozen desfilea egin izan dute hainbat urtez, Santanatxu egunez, Zornotzako Karmen jailetan. Aurten, baina, Zornotzako Gazteen elkartearen eta Ametx erakundearen eskutik, egun

horretako egitarauaren planteamendua aldatzea erabaki dute. 60ko hamarkada gaitzat hartuta, Talent Show bat antolatu dute aurten, karrozen desfilearen ordezkio. 60ko hamarkadako artista ezagunen imitatzailer zornotza-

rrak agertuko dira, beraz, uztailearen 27an, oholtzan.

Garai batean parte hartze handikoa zen Santanatxu eguneko karrozen desfilea indarra galtzen joan da azken urteetan. Enara Lauzirika Zornotzako

Gazteen elkarteko kideak azaldu duenez, “parte hartzeari dagokionez, oso gorabeheratsua izan da azken urteotan karrozen desfilea, eta iazkoa urterik txarrena izan zen”. Duela urte batzuk karrozen desfilea “oso

ekintza herrikoia” bazen ere, “sasoi batean parte hartzen zuen jendeak ez du parte hartu azken urteetan, eta gazteak ez dira ekintza horretara batu”, Lauzirikaren berbetan.

Koadrilen arteko Challenge-aren barruko ekintza izango da

Indarra galtzen joan den karrozen desfilearen ordezkio antolatu dute

Azken hiru urteetan Zornotzako Gazteek antolatuta egin izan dituzten play back lehiaketa eta Talent Show ekintzak batu, eta 16 urtetik gorako herri-tarrei egingo diete, aurten, 60ko hamarkadako Talent Show-an parte hartzeko gonbidapena. Ekintza hori koadrilen arteko Challenge-aren barruko probetako bat izango da, gainera.

Zornotzarrak lehenago ere eduki dute Santanatxu egunean moztarrotzeko ohitura, baina, aurten, gaia emanda datorkiela da nobedadea.

Jaiak egun osoz gozatzeko hainbat plan, gazteen eskutik

Uztailearen 22an egingo dituzte Koadrilen eguneko bazkaria eta ekintzak

> GAZTEAK Itsaso Esteban
Ohitura den bezala, goizean hasi eta egun guztia jai giroaz gozatzeko emateko hainbat aukera izango dute zornotzarrak Karmengo jaietako hainbat egunetan. Uztailearen 22an, esaterako, Koadrilen Eguna ospatuko dute, eta egun guztia emango dute elkarregaz, Txosnetan. Koadrilen bazkari herrikoia eta hainbat ekintza burutuko dituzte, Zornotzako koadrilen eskutik.

Jaietako egitarauko hainbat ekintzatan parte hartzen dute,

Gazteek antolatuta, Koadrilen Eguna ospatuko dute uztailearen 22an

Uztailearen 23ko marmitako lehiaketan ere parte hartuko dute

gainera, Zornotzako koadriletako kideek. Uztailearen 23an, esaterako, herri guztia marmitako kazolaz beteko duen lehiaketan ere parte hartuko dute gazte zornotzarrak. Jaietan burutzen duten Challenge lehiaketaren barruko probetako bat izango da marmitako lehiaketa hori.

Karmengo jaietarako gazteek gazteentzat antolatzen dituzten ekintzen artean, uztailearen 20an 18:30ean egingo duten koadrilen arteko piragua jaitziera ere ekintza arrakastatsua da.



Uztailearen 20an egingo dute gazteek piragua jaitziera.

ekin

ekin S. Coop.

Arriagane Industrialdea (Boroa auzoa)

48340 AMOREBIETA

www.ekin.es

ner group

Solidaritatez beteta daude jai lasterketako kilometroak

ASA taldearentzat janari bilketa egiteko baliatuko dute proba



lazio gaztetxoek lasterketa bateko irudia. Zornotzako Korrikalariak

> KORRIKA J.D.

Zornotzako Korrikalariak taldeak jaietan antolatzen duen lasterketak bosgarren aldia egingo du aurten. Umeak eta gaztetxoak kirolera erakartzea da ekimenaren helburua, eta hori ukitu solidarioekin jantzi dute urtetik urtera.

Lasterketak uztailaren 24an izango dira, eta izen-ematea

doakoa da. Parte-hartzaileen ekarpena beste era batekoa izan dadin gura dute: solidarioa. Horrela, janari bilketa egingo dute, Zornotzan beharrezana duten familia eta pertsonen laguntzen dien ASA (Accion Social de Amorebieta) taldeari laguntzeko. Izena egunean bertan eman daiteke, eta gune horretan itsulapiko bat ere jarriko dute

ekarpen ekonomikoa egin gura dutenei zuzenduta.

Horregaz batera, kultura eta herritartasun desberdinen artean zubiak eraikitzeke baliatu gura dute proba, batez ere gaztetxoek artean. Horrela, goizean zehar antolatuko dituzten askotariko lasterketetako bat Zornotzako hainbat familiek urtero udan etxean hartzen dituzten

ume sahararrei zuzendutakoa izango da.

Errelebo lasterketak

Lasterketak mailaka banatu dituzte, adinaren arabera. 2-3 urtekoentzat 12:00etan hasiko dira. Hortik aurrera, 15 urtera arteko gaztetxoentzako lasterketak egongo dira, 12:30 arte.

Ondoren, aurten nobedadea den erreleboetako lasterketa egingo dute. Atletismoa bakar-kako kirola denez, adiskidetasuna bultzatzeko eta dibertigarriagoa izateko sortu dute 7-15 urteko gazteei zuzendutako errelebo proba (800 metro). Gazteen lasterketetan parte hartzen dutenek opari bana jasoko dute.

Eguerdian nagusien lasterketak hasiko dira, gizonetan eta emakumeetan. Zornotzako herrigunean milia bateko ibilbidea osatu beharko dute denek. 13:00etan 16-34 urte artekoena hasiko da, eta 13:10ean 35 urtetik gorakoena. Lehen sailkatuek garaikurra jasoko dute. Sari banaketaren ostean zozketak egingo dituzte partaideen artean.

Lasterketa desberdinetarako izen-ematea helbide elektronikoz egiteko aukera ere badago, uztailaren 22ra arte: zornotzakokorrikalariak@gmail.com.

Xakean, arku-tiroan eta bizikletan aritzeko aukera

> KIROLA J.D.

Karmen jaien barruan kirol eskaintza zabala dago. Gustu eta kolore askotarikoa, gainera. Herriko zenbait kirol elkartek euren kirola kalera ateratzeko baliatzen dituzte jaiak.

Xakea izango da aukeretakoa bat. Zornotza xake taldeak Agustin Zamakonaren Oroi-menezko 35. Txapelketa antolatu du uztailaren 17an; egun bi geroago, aldi bereko 50 xake partida ikusteko aukera egongo da Zelaieta parkean.

Arku-tiroa probatzeko aukera ere egongo da Ostadar taldearen eskutik, Jauregibarria parkean.

Urgozo txirrindulari elkarteak eta Urgozo errugbi taldeak antolatuta, bizikleta eta errugbi egunak antolatu dituzte uztailaren 22an eta 23an.

Boloek osatzen dute kirol eskaintza. Hilaren 23ko goizean umeentzako txapelketa antolatuko du Zornotza klubak, eta arratsaldean Karmen jaietako txapelketa.

Pablo Berasaluzeren azken partidua Zornotzan

Albisugaz jokatu du binakako partidua

> PILOTA J.D.

Pablo Berasaluzek Zornotzan jokatu du erretiratu aurreko agur partiduetako bat. Bere ibilbidean behin baino gehiagotan egokitu zaio Zornotzako pilotalekuan jokatzeko, batez ere, binakako txapelketaren barruan. Uztailaren 16koa azkenekoa izango da.

Aurrelari berriztarrak Jon Ander Albisugaz osatuko du bikotea, eta biek Alvaro Untoria eta Mikel Urrutikoetxea izango dituzte aurkari. Beraz, Berasa-

luze maisua eta Urrutikoetxea ikaslea aurrez aurre ikusteko aukera eskainiko du Zornotzako Lagun Onak pilota elkar-tearen ekimenez antolatutako jaialdiak. Atarikoan Tainta-Imaz eta Arteaga II-Ibai Zabala lehiatuko dira.

Urrutikoetxea eta Untoria izango dituzte aurkari uztailaren 16an



Berrizen eta Durangon ere agur partidua jokatu ditu Berasaluze II-k.

Esku pilota plazara aterako dute frontoi mugikor baten bidez

Udaletxe pareko plazan esku pilota jolas-parkea antolatuko dute



Bilboko iazko jaietan estreinatu zuten pilotaleku mugikorra Zornotzara helduko da karmenetan.

> PILOTA J.D.

Plazak eta elizetako aterpeak esku pilotan aritzeko gune naturalak izan dira urte askoan. Gaur egun, herririk gehienek pilotaleku itxiak dituzte. Askoz azpiegitura egokiagoak dira pilotan jokatzeko, baina eraikin itxi baten barruan egiten dira. Horregatik, pilotak izan duen espazio publiko berreskuratzeko, Bizkaiko Pilota Federazioak pilotaleku mugikor bat darabil herririk

herri. Iaz Bilboko jaietan jarri zuten lehenengoz. Hileon Galdakaon eta Santurtzin jarri dute, eta uztailaren 17an Zornotzaren txanda izango da. Udaletxe pareko plazan pilotaleku mugikor bat atonduko dute. Zornotzako Lagun Onak elkarteko pilotariek hainbat erakustaldi eskainiko dituzte, eta gura duenak pilotalekua probatzeko aukera ere izango du: "Esku pilota ikusi dadila gura dugu, eta plazetara aterata,

gaztetxoak praktikatzen animatu daitezkeela uste dugu", dio Bizkaiko federazioko Iker Amarikak. Pilotaleku mugikorrak 8,5 metroko frontisa eta 13 metroko ezker pareta ditu luzeran.

Jaietako pilota eskaintza osatzeko, hilaren 25ean karmeneta IX. Esku Pilota Txapelketako finalak jokatu dituzte; gazterik onenak lau t'erdian batzen dituen Master Kaiolako finalak ere jaietan izango dira.

Amaia Urzainki | Abeslaria | Eibar, 1965

“Entzuten nautenak eta neu gustura egotea da nire helburua”

Erromantizismoko kanta frantsesak eskainiko ditu Urzainkik uztailaren 14an, Durangon, Roberto Oviedo pianistak lagunduta

➤ **MUSIKA** Itsaso Esteban

Zelakoa izango da eguenean Kurutzesantun eskainiko duzun kontzertua?

Entzutera datorren jendeari emanaldi gozoa eta lasaia eskaini gura diot; uztailaren 14an Durangon emango dudana kontzertua entzulegoarentzat bere egunerokoan parentesi bat izatea gura nuke. *Chansons D’amour* izenburua du emanaldiak, eta hamalau kantako erreperatorioa eskainiko dut, *a capella*, Roberto Oviedoren pianoak lagunduta.

Zer deritzozu Kurutzesantu Museolari? Kontzerturako agertoki egokia da?

Oso egokia dela uste dut. Giro gozoa sortuko dela uste dut. Eguraldi ona egiten badu, lorategian egingo dugu emanaldia, eta, bestela, Kurutzesantu Museoko barrualdea ere oso leku ederra da.

Maitasunari buruzko kantak dira erreperitorioaren oinarria.

Bai, betidanik eduki dut joera bat maitasunari buruzko kantezik. XIX. mendeko Erromantizismo amaierako eta Modernismo hasierako konposatzaileen obrak oso gustuko ditut: oso gozoak dira.

Frantsesak dira eguenean eskainiko duzun erreperitorioko konposizio guztiak. Zer konpositorerenak?

Besteak beste, Hahn, Massenet, Debussy edo Fauréren kantak abestuko ditut.

Kantagintza klasikoaren munduan oso konpositore ezagunak dira guztiak, eta, adibidez, *Chanson triste* eta halakoak ezagunak egingo zaizkio jendeari.

Zergatik hautatu dituzu kanta horiek?

Oso gustuko ditudalako, batetik, baina, baita, nire ahotsaren ezaugarriekin bat datozeelako ere. Musika frantsesak kantakera oso polibalentea eskatzen du: gai izan behar duzu tonu oso altuak zein oso baxuak ere abesteko, edo piano zein forteak egiteko. Aldi berean, musika estilo honek askatasun handia ematen dizu zure interpretazioa egiteko.

Kanta guztiak dira frantsesez. Hizkuntzarekin ondo moldatu zara?

Horixe izan da zailena. Baina, zorionez, badauzkat lagunak frantsesa dakitenak, eta asko lagundu didate. Beraien laguntzari esker joan naiz ahoskera hobetzen. Pozik nago lortu dudana. Emanaldia-ri batasuna emateko, edonola ere, performance txiki bat ere izango da Kurutzesantuko kontzertuan.

Zer dela-eta eman duzu abesbatzetik kanpo bakarrik aritzeko pausoa?

Musikaren oso zalea den lagun talde bat daukat, eta martxan ipini izan ditudan beste proiektu askok bezala, eurekin lotura du honek ere: hortik jaio zen ideia hau ere. Duela hiru urte ezagutu nuen proiektu



tu honetan nigan diharduen Roberto Oviedo pianista, eta beragaz eman dut bakarka kantatzeko pauso hau. Aukera ederra da beragaz aritzea.

Zelan uztartzen duzu musikarekiko zaletasuna zure eguneroko bizitzagaz?

Nahiko ondo moldatzen naiz. Zorionez, 15:00ak arteko lan ordutegia daukat, eta arratsalde guztia neure erara moldatzeko aukera daukat. Seme-alabak nagusiak dira dagoeneko, eta ateratzen dut kantatzeko denbora. Ikasten segitzeko eta entseatzeko nahikoa denbora daukat.

Zein izan da zure bizitzan zehar kantatzeko zaletasunak izan duen lekua?

Txikitatik gustatu izan zait abestea, baina Durangora etorri nintzenean, orain 30 urte inguru, hasi nintzen Doinu Zahar kamera abesbatzan kantatzen. Askosi nuen eurekin. Duela urte batzuk Bogoroditsie abesbatzean ere hasi nintzen, eta orain bietan nabil. Gainera, duela 12 urte hasi nintzen bakarkako kantuko klaseak hartzen. Eta horretan jarraitzen dut, musika eskolan Agurtzane Mentxakagaz.

Zer asmo daukazu etorkizunerako?

Emanaldi hau apur bat zabaltzea gura nuke, inguruko herrietan bada ere. Ez dut beharrik sentitzen honetatik bizitzeko, eta arrakastaren bila ere ez nabil. Neu eta entzuten nautenak gustura egotea da nire helburu nagusia.

Oso gogoan du aitarengandik jaso zuela musikazaletasuna

Aitak gitarragaz lagunduta kantatzen zuen umea zela

Umetatik aitarengandik datorkio musikazaletasuna Amaia Urzainkiri. “Musika asko entzuten zen gure etxean, eta umea nintzela, aitak gitarra jo eta nik kantatu egiten nuen”, gogoratu du. “Etxean jasotako zaletasun horri esker”, dio, “kantua beti egon da nire bizitzan presente”. Oso gogoan du aitarengandik jasotakoa: “Duela urte batzuk hil zen aita, eta badut pena bat kantuaren arloko nire urterik onenak ez dituelako gozatu. Baina, orain ere, egiten dudana guztia bere oroimenez egiten dut, zelanbait. Oso zoriontsua litzateke ikusita zertan nabilen”.

Doinu Zahar eta Bogoroditsie abesbatzekin eskaini izan dituen emanaldiez gainera, Durangaldean memoria historikoari loturiko ekitaldietan kantatu izan du, besteak beste, Amaia Urzainkik. Durangoko bonbardaketan hildakoak eta faxismoak errepresaliatutakoak gogoan hartzeko ekitaldietan kantatu izan du, adibidez, Durangon eta Berrizen. “Gure historia izan da hori, eta gertakari horiek gogoratzeko ekitaldietan kantatu dudanean zeozer mugitu zait barruan: emanaldi horiek prestatzean ere negargura sentitu izan dut sarritan”, dio.

Jendaurrean kantatzean bere barrena biluzten ari dela sentitzen duela dio Amaia Urzainkik. “Beldur handiz atera izan naiz jendaurrera urte askoan”, aitortu du, “eta gainditu ez arren, poliki-poliki beldur horri aurre egiten joan naiz”. Heldutasunaren onurak ahotsen ere nabaritu izan dituela azpimarratu du, bestalde.

Astero joaten da Agurtzane Mentxaren Durangoko musika eskolako kantu klaseetara. “Amaierarik bako ikasketa prozesua da hau”, dio: “Lehenengo, zure ahotsa ezagutu, onartu eta kontrolatzen ikasi behar duzu, eta gero dator interpretazioa edo jendaurrean egoteko modua lantzea, adibidez”.

“Ahots bakoitza mundu bat da”, dio abeslariak, “baina nekatuta edo estresatuta bazaude, edo arnasketa arazoak badituzu, ez du funtzionatzen”. Izan ere, ezagutu, onartu eta kontrolatu ezezik, zaindu ere egin behar da ahotsa.

Udaletxean dago udalak erosi duen Enrike Renteriaren koadroa

Domekako Enrike Renteria margo lehiaketaren aurkezpenean erakutsi dute

> PINTURA Itsaso Esteban Andoni Agirrebeitia alkateak, Joseba Fernandez Zornoza Arte eta Kultura elkarteak kideak eta Bego Renteria margolaria- ren alabak aurkeztu dute uztai-

laren 10ean Zornotzan egingo duten Enrike Renteria pintura lehiaketaren XIX. edizioa. Ager- raldi horretan erakutsi dute, bestalde, udalak erosi berri duen Renteriaren koadroa ere.

Zornotzako margolariaren ize- na daraman aire zabaleko pin- tura lehiaketaren aurkezpene- a aprobetxatu zuten udalak 5.000 euroan erosi duen Enrike Ren- teriaren (Zornotza, 1900-1982) koadroa aurkezteko.

Domeka goizean jardungo dira artistak Enrike Renteria lehiaketarako lanak margotzen

Zornotzako Andra Mari eli- zaren irudia agertzen da 1968ko data daukan koadro horretan. Andoni Agirrebeitia alkateak aurkezpenean azpimarratu zuenez, “herriaren ondarea berreskuratzea” izan da udala- ren erosketa horren arrazoia, eta kokapen zehatza oraindik erabaki ez duten arren, “udalet- xeko erreferentzia- zko lekuren batean” zintzilikatuko dute En- rike Renteriaren obra.



5.000 euroan erosi du Zornotzako Udalak Renteriaren margolana.

Margolariz beteko du Zorno- tza domekako Enrike Renteria pintura lehiaketak. Joseba Fer- nandez lehiaketaren antolatzaile- ak aurreratu duenez, aurtan 40 bat margolarik parte hartzea espero dute. Iaz bezala, hamar sari banatuko dituzte guztira: margolari helduen artean zazpi, eta 14 urtetik beherakoen artean, beste hiru.

Domeka goizean jardungo dira artistak aukeratzeko dituz- ten Zornotzako txokoak euren koadroetan margotzen, eta, 18:00etan, Zelaia zentroko au- ditorioan burutuko dute sari banaketa ekitaldia.

Balkoietan ‘Zintzilik’

Enrike Renteria kaleko pintura lehiaketa horregaz bat eginda, Zintzilik margo lehiaketaren sariak ere uztailaren 10ean, 18:00etan emango dituzte. Mar- go lehiaketa horretan lanak aurkeztu dituzten artistek egin- dako koadroekin jantziko dituz- te herriko balkoiak, domekako eguna koloreztatzeko.

Hiru sari orokor emango dituzte, eta herriko parte-har- tzailerik onena ere sarituko du- te. Uztail osoan zehar herriko hainbat balkoitan izango dira lehiaketara aurkeztutako mar- golanak ikusgai.

GEURE DURANGALDEA

AINHOA URIEN

Ikaslea



Disfrutatu(arazi) jaietan

Inguruko herri eta auzo gehie- netan jaiak hasita edo hastear direnean errealitateak ika- ratu egiten nau. Denok ere errazegi jartzen dugu gomets morea paparrean, eta txos- netako edalontzietan dauden pegatekin gainezka jartzen dugu ordurako alkoholez zi- kindutako kamiseta. Bilgune Feministako pegataren bat ere bai tartean, seguru. Izan ere, nor ez da ba honezkero emakumeon aldarri baten edo besteren parte egin?

Tabernetan kartelak no- nahi eraso sexistarik onartu- ko ez dela esanez. Nola esango dugu ba guk, ezkertiar bo- rrokalaria gorriok, norbait jotzea onartuko dugunik edo indarrez heldutako penetra- zio biolentoari aurre egingo ez diogunik? Baina oraindik ez diogu muzin egin taberna berdinetan hitzez eraso egiten digun musika dantzatzeari, parrandan komunen segrega- zioa dela-eta batzuk beste ba- tzuk baino denbora gehiagoz txizari eutsi beharrari...

Honez gain, jai ereduaren inguruko lanketa feministak nagi antzeko bat ematen digu, eta hor doa pilatzen den indar sortzaile guztia errekan behe- ra, ajeak pasatzen ditugun bi- tartean. Izan ere, guk, marxis- ta-iraultzaile-antikapitalistok, bai, geuk ere bai, heteropa- triarkatuaren prismatik begi- ratzen diogu geure ziborrari.

Europaren duintasuna Me- diterraneoan itotzen doan martxa berean gure huma- nitate eta zentzun apurra la- bankadatik hasi eta piropoan amaitzen den erasoetan gal- tzen da.

Ezinbestekoa dugu gure jaietako antolaketa kontzien- te bihurtzea, ordena soziala eraldatzeko behingoagatik martxan jar gaitezen.

> ANTZERKIA Itsaso Esteban Udako aire zabaleko kultur ema- naldien programa biren ba- rruan arituko dira, asteburuan, Durangaldean, Maintomano zirku taldekoak. Berrizko Ola- kueta plazan eskainiko dute gaur, 20:00etan, *Ekilibuá* zirku ikuskizuna; eta Durangoko Ez- kurdi plazan, bihar, 20:00etan.

Gaztela eta Leongo antzerki jaialdian kale ikuskizunik onenaren saria jaso zuen duela urte bi

Duela urte bi, Gaztela eta Leongo antzerki jaialdian kale ikuskizunik onenaren saria ja-

Durangaldean saio bi eskainiko ditu Maintomano taldeak asteburuan

Gaur Berrizen eta bihar Durangon eskainiko dute ‘Ekilibuá’ ikuskizuna

so zuen 45 minutuko iraupena duen ikuskizun honek.

Egurrezko objektuak ma- nipulatzen dituzte artistek be- raian oreka eta malabare saioak egiteko, eta umorezko eszenak sortzen dituzte.

Marcos Rivas malabarista eta Morgane Jaudou ekilibrista dira 2005. urtetik Maintomano taldea osatzen duten artista biak, eta oreka-jokoak, mala- bareak eta antzerkia uztartzen dituzte *Ekilibuá* ikuskizunean.



Marcos Rivas eta Morgane Jaudou dira taldeko kideak.



uda kalean bizi 2016 san agustin kultur gunea kalean
MUSIKA ZIRKOA DANTZA ANTZERKIA

Uda honetan

PLATERUEN TERRAZAK

Egunero doako terraza zerbitzua gaueko 22ak arte

Razioak
Etxeko irabiatuak
Garagardo berezien karta
Te hotza

Iñaki Portilla | Zornotza, 1959 | Zornotza Saskibaloia Taldeko jarraitzaile eta bazkidea

“Zuzendaritzakoek oinak lurrean dituzte; horrek konfiantza ematen dit”

Futbolari eta futbol entrenatzaile ohi zornotzarra saskibaloizale amorratu da gaur egun



> KIROLA J. Derteano
Zornotza S.T.-k Zilarrezko LEB ligan jarraituko du. Bazkideek aho batez onartu dute bide hori prosaposatzen zuen zuzendaritzaren aurrekontua. Aste zailak izan dira, eta zaleek zelan bizi izan duten jakin gura izan dugu. Iñaki Portilla da zale sutsu horietako bat. Alabak saskibaloian hasi zitzaizkionetik saskibaloian buru-belarri murgilduta dabil. Benidormen dago oporretan, eta klubeko hiru kamiseta eraman ditu.

Kamiseta faltan ez zara geratu-ko behintzat.
Berdea, gorria eta zuria ditut. Alaba biek saskibaloian jokatzen dute, kamiseta berde eta gorriak dituzte — lehen eta bigarren ekipazioa — eta biak erosi ditut. Zilarrezko LEB ligakoek zuri bat ere bazuten, eta hura erregalatuta lortu nuen.

Klubak ateratako eskumuturreko berdea eraman duzu?
Bai, baina egunez ez dut erabiltzen. ‘Ametsak berdeak direlako’ esaldia inskribaturik du, eta itsasoan edo igerilekuan uretan sartuta ezabatu egingo dela-koan nago. Gaueetan jartzen dut.

Kamiseta berdea ez duzu oharkabea eraman jantzita.
Ez. Iaz Benidormen gizon bat begira-begira geratu zitzaidan. Niregana hurreratu eta ‘Mikel Garitaonandia —entrenatzailea— ezagutzen duzu?’ galdetu zidan. Haren laguna zela eta ea beragaz argazki bat aterako nuen eskatu zidan. Nik baietz. Nor zen galdetu nion. Kuko Cruza zen, Lucentum Alacante taldeko orduko entrenatzailea.

Aurrekontuak onartuta eta datorren denboraldiko proiektua martxan dela, oporrak gehia-

go gozatzen dira? Lasaigarria izan da?

Nik erdi argi nuen urteko kontuak onartuko zirena. Azken batean, Joxe Etxebarriak —presidentea— zein zuzendaritzako kideek beren bizitzako ordu asko ematen dituzte hor lanean. Horiei argi berdea eman behar zaiela uste dut. Batzarraren inork ez zuen ezezkorik esan. Zuzendaritzan daudenak oinak lurrean dituzten lagunak dira, ez dira duten baino gehiago gastatuko dutenak, eta horrek konfiantza ematen dit. Badakite zer dagoen, eta horregaz lan egiten dute.

500 bazkide dituen klubeko urteko batzarrean 20 bat lagun batzeak harritu egin zintuen?

Ez ninduen harritu. Ni futbol mundutik nator. Futbolaria, futbol entrenatzailea eta Amo-

rebieta bazkide izana naiz. Amorebietak bazkide gehiago ditu, eta batzar orokorretan antzerako jendea batzen zen. Jendeak ez ditu horrelako ardurak gura. Gainera, Zornotzan gertatzen den moduan, taldea esku honetan dagoela dakizunean ez zaitu hainbeste kezkatzen. Batzarrik ez eginda ere ondo funtzionatuko lukeela uste dut.

Zornotzaren iazko denboraldia hala-nolako izan zen. Datorrenari begira zer esperantza duzu?

Ba, ezin esan. Zalantzan gaudenok, ze presidenteak ez du oraingoz pistarik eman. Entzun dudaren arabera, datorren urteko filosofia hauxe da: gutxienez jokalarien %70 bizkaitarrak izatea. Jakina, jokalaria bizkaitarren merkatua mugatua da maila batetik gora. Zilarrezko LEB ligatik gora lau bat ibiliko dira. Gero, taldea osatzeko fitxaketetan asmatzeak garrantzi handia du. ‘Garitak’ eta bere laguntzaileek horretarako bista ona dutela uste dut, baina iaz ez zen guztiz asmatu fitxaketetan. Beste faktore bat zortea izango da. Gure mailan beti dago goitik nabarmentzen den talde bat, baina beste talde askoren artean ia ez dago alderik. Orain urte bi laugarren amaitu genuen, eta iaz postu hori edo hobe lortzeko aukera bagenuela uste genuen, baina okerrago aritu ginen.

Saskibaloia betidanik gustatu zaizu?

Kirolzalea naiz, saskibaloia baina, baina sekula ez dut jokatu. Orain 12 urte alaba nagusia saskibaloian hasi zenean, orduan murgildu nintzen buru-belarri.

Partidu asko ikusten dituzu?

Ane eta Pauleren [alabak] zein Zilarrezko LEB ligako partidu denak ikusten ditut. Eta eurek ez jokatuta ere, zapatu arratsalde edo domeka goiz batean zereginik ez badut, saskibaloia ikustera joaten naiz Ixer-eko kiroldegira; Batzuetan kiroldegian 09:00etan sartu, 13:00etan irten, eta arratsaldean buelta. Gurago dut saskibaloia ikusi beste edozein kirol baino.

Asteburuak ondo beteta dituzu orduan.

Bai. Esaterako, oraintsu alaba gazteak kopako finala jokatzen zuen Portugaleten, 16:00etan; 18:30ean, berriz, Durangoko Jesuitetan entrenamendua zuen Bizkaiko selekzioaren lehen aukeraketan dagoelako. Bost minuturen faltan, Kopako garaipena ondo bideratuta zegoela ikustean, arinetan irten ginen Durangorantz. Holantxik ibili naiz urte osoan.

“**Gaur 19.106 lagun ditugu facebook taldean eta Zornotzan 18.100 biztanle daude**”

Gizonetan Durangaldeko erreferentea da Zornotza, baina emakumeetan Durangoko Tabirako pauso bat aurretik doa.

Bai. Oraingoz ez gauden Gernika, Durango eta Loiola-Indautxugaz lehiatzeko moduan. Nik Durangoko Jesuitetan ikasi dut. Orduan, saskibaloiak futbolarik baino indar handiagoa zuen. Gure aurretik dagoen kultura bat du Durangok arlo horretan. Zornotzak aurrerakada handia eman du azken bost urteetan, baina Durangok abantaila historikoa handia daramakigu.

Facebook-eko ‘Zornotza ST Taldearen Lagunak’ orrialdea zeuk sortu zenuen eta jarraitzaile asko ditu.

Neure ingurukoekin albisteak elkarbanatzeko hasi nuen taldea, eta apurka jendea lagun egiteko eskaerak egiten hasi zitzaidan. 2.000 jarraitzaile helitzean ideia bat otu zitzaidan: Zornotzako biztanle kopurua baino jarraitzaile gehiago izatea. Orduan taldea ahalik eta gehien zabaltzen laguntzeko eskatu nien ezagunei. Gaur egun, 19.106 lagun ditugu taldean, eta Zornotzan 18.100 bat lagun bizi dira. Herrik kanpokoak gehiago izango dira, jakina. Baina begira: asteen Tomas Serrano zoriondu dut taldearen bidez, bere urteguna zelako. Borondatezko lan itzela egiten du klubaren alde; hamaika lan, musutruk. Facebook taldeak jendeak horrelako gauzak jakin ditzan balio badu, horixe da inportantea. Horri ematen diot balioa kopuruari baino gehiago.

Txirrindularitza ulertzeko eredu bi, ingelesa eta euskalduna, elkarrengandik ikasten

Erresuma Batuko hainbat txirrindulari eskualdean daude Duranguesak antolatutako truke programan

> TXIRRINDULARITZA J.D.

Erresuma Batuko zortzi txirrindulari gazte Durangaldean dira egunotan. Ondoren, hemengo bost txirrindulari izango dira Ingalaterra edo Eskoziara joan-

go direnak. Duranguesa txirrindulari elkarteak orain zortzi urte hasitako txirrindulari-trukeak ziklismoa ulertzeko eredu bira elkarrengandik ikasteko aukera eskaintzen die urtero.

Eredu ingelesa emaitzei begirakoa da, gazte gaztetatik: "Han gehiago estutzen dituzte gaztetatik. Ohituta daude Belgikan maila handiko lasterketan parte hartzeraz. Horregatik,

adin hauetan eginago egoten dira", dio Duranguesako Ibon Atxotegik. Horren adierazle da joan zen asteburuan Zaldibarraren lehiatutako proba. Ihesaldi nagusiko 15 txirrindularietatik 13 ingelesak izan ziren. Etapa garaipenak eta aurreneko postu denek ere izen-abizen ingelesak zituzten.

Euskal Herrian txirrindulariak hezteko eta egiteko erabiltzen duten ereduak, aldiz, etorkizunera begirakoa da: "Hemen eredu progresiboagoa erabiltzen dugu", Atxotegiren esanetan. Erresuma Batua 15 egunerako joango diren txirrindulariak Peru Barañano, Txomin Munitxa, Peio Ugarte, Eukene Ertzila eta Markel Rodriguez izango dira.

Batzuek zein besteek 15 eta 18 urte artean dituzte.

ADITUAREN TXOKOA

JUAN CARLOS PEREZ

Areto -futbola



Mallabia taldea

Denboraldiko azken zutabea da, eta zuen baimenarekin orain 19 urte Rafarekin eta Oscarrekin batera sortzen lagundu nuen klubari buruz berba egingo dut.

14-15 urteko gaztetxoek osatu zuten lehen taldea, eta Bizkaiko txapelketa lehiatu zuten; 2004tik hona areto-futbol federatua dabil. Bigarren Erregional mailan hainbat urte eman ostean, segidan lau igoera lortu eta Hirugarren Mailara heldu zen. Lau urtez eutsi zion han, harik eta kontu ekonomikoengatik mailari uko egin zion arte. Gaur egun, Euskal Ligan dihardu. Gainera, beste talde bat dugu Lehen Erregional mailan; klubeko etorkizuna den gazteen taldeak, berriz, igoera lortu du aurretik.

Bidean hazten joan gara, eta orain 17 urte futbol eskola sortu genuen Mallabiko umeei aukera berriak irekiz.

Urteetan Jolas Leku sortu eta kudeatu genuen, gazteei neguko arratsalde hotzak billarrean, ping-pong-ean, futbolinean... igoerazko aterpea eskaintzen zien lokala.

15 urte daramatzagu tenis torneo antolatzen ekainean, eta orain urte bi tenis eskola abiatu genuen. Oraintsu frontenis gehitu dugu gure ekintza zerrendan.

Udan euskararen aldeko maratona antolatzen dugu eta baita Mallabia Cup ere: Euskadi osoko 500 bat ume batzen ditugure ekintza izarrak. Mallabia eskolako areto-futbolaren hiriburu bihurtzen da.

Laburbilduz, ez dago txar to 1.000 biztanle baino gehiagotxo dituen herri batentzat. Uda ona igaro!



Egunotan Durangaldean dauden txirrindulari ingelesak, Durangoko Ezkurdi parkean.

Isasi Euskadiko txapeldun Europakora joan aurretik

23 urtez azpiko erlojupekoa irabazi du Ziortza Isasik

> TXIRRINDULARITZA J.D.

Ziortza Isasi elorriarrak (Biorcaer) 23 urtez azpiko Euskadiko erlojupeko txapelketa irabazi du Iturmendin (Nafarroa). Probako 14 kilometroak 20.11ko denboran osatu zituen. Bizkaia-Durangoko Naia Leonet

hirugarren sailkatu zen. Juniorretan hirugarren amaitu zuen Maialen Aramendiak (CAF).

Isasik errepidea pistagatik aldatuko du datorren astean, eta Europako txapelketan parte hartuko du Italiako Montichiari herriko belodromoan.



Egunotan Mallorcan dago Europako txapelketa prestatzen. @BizkaiaDurango

Arabiourrutia bigarren txapelaren bila trinketeen

Federazioaren zirkuituaren barruko finala du gaur

> TRINKETA J.D.

Hile baten barruan bigarren txapela jantzi dezake gaur Aitor Arabiourrutia pilotari abadiñarrak. Ekain hasieran Euskadiko Pilota Federazioko Zirkuituaren barruko Euskal Liga irabazi zuen Asier Aspuru abadiñarra bikotekide zuela. Atxarte pilota kluba ordezkatu zuten. Gaur, 19:00etatik aurrera, berriz, trinketeko binakako elite mailako finala jokatu du Tornosolon. Oraingoan, Bilabonako Behar Zana taldeko Iraolagaz osatuko du bikotea.

Aurrez aurre Behar Zana-ko beste pilotari bat, Maiz, eta Buruzgaineko Arbizu izango dituzte.

Arabiourrutiak eta Iraolak nagusitasunez egin dute finalerako bidea. Final laurdenetan San Sebastian-Angulo 28-40ko emaitzaz menderatu zituzten, eta finalerdietan ez zuten aukerarik eman Sevilla eta Ugarteri: 12-40. Maizek eta Arbizuk, berriz, gehiago sufritu dute euren aurkariak kanporatzeko: 32-40 final laurdenetan, eta 26-40 finalerdietan.

Orain hilabete zirkuituaren barruko Euskal Liga irabazi zuen Asier Aspuru abadiñarragaz

R.P.S. 21406

A. Urreta podólogo

Podinara Urreta Jainaga

OINETAKO PATOLOGIAK
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ

IMQ **MAPFRE**

Herriko gudarien kalea, 10 behe - DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404

Arrike
Liburudenda

Kalebarria z/g - Durango
Tel.: 946 201 893
Faxa: 946 816 403

MACOBER

Eraikuntzarako materiala

Zeramika eta gresa

Eitua industriagunea, 66 BERRIZ
Tel.: 946 827 890 macober@movistar.es



BAUTISTA
MUEBLES Y DECORACIÓN

www.bautistamuebles.com



**Zure erosketa %100 finantzatzan dugu, eta azaroan hasiko zara ordaintzen:
10 kuota, sarrerarik, interesik, komisorik eta gasturik gabe**



**Deskontu bereziak alor guztietan:
sukaldeak, egongelak, logelak, haurrentzako logelak, tapizak, bainugelak**



**Proiektua eta aurrekontua kompromisorik gabe
Finantziazioa dohainik**



94 672 77 00

info@bautistamuebles.com

**Urbite Industriagunea, 4 - 2. pabailoa ABADIÑO
(Eroski merkataritza-gunearen ondoan)**

Merke

Inmobiliariak

AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1.º ezk. • 48200 DURANGO
Tel.: 946 813 562

ETXEBITZAK ALOKAIKUAN

DURANGO. Bat, bi eta hiru logelako etxeak alokairuan. Hilean 550€-tik hasita.

ETXEBITZAK SALGAI

DURANGO. Tabirakalea. 3 logelako etxea, komuna, sukaldea, egongela, dena kanpora begira. Eta garaje itxia.

DURANGO. Errotarixuena Atiko zoragarria. 3 logela, bi komun, bi terraza zabal, sukaldea, egongela, dena kanpora begira, eta garaje itxia lau kotxe sartzeko. Ikusgarria.

DURANGO. Francisco Ibarra. 4 logelako etxebizitza, 2 komun, sukaldea, egongela balkoiarekin eta despentsa.

ATXONDO. 3 logelako etxebizitza, komuna, sukaldea, egongela, dena kanpora begira, hiru balkoi. Horrez gain, garaje itxia.

ELORRIO. 4 logelako etxebizitza, egongela, sukaldea balkoiarekin, komuna, eta garajea itxia.

DURANGO. Kalebarria, 3 logelako etxebizitza, sukaldea, egongela, eta komuna. 120.000€.

DURANGO. ARTEKALE. Azken etxebizitza, bikoak, trastelekuarekin. Prezioak 165.000€-tik hasita.

LEKEITIO. 3 logelako etxebizitza, komuna, sukaldea, egongela terrazarekin, garajea. Urbanizazio pribatu baten barruan, igerileku eta frontoiarekin.

ABADIÑO. Aita Letona. Etxebizitza ederra 2 logelarekin, komuna, sukaldea, egongela, garajea eta trastelekua.

ABADIÑO. Iturritxo. Logela bateko apartamentua, sukalde amerikarra-egongelarekin, komuna, esekitokia, ganbara, garaje bikoitza eta trastelekua.

DURANGO. ATIKO BERRIA ESTREINATZEKO. 2 logela, 2 komun, sukalde amerikarra, egongela, garaje itxia eta terraza ikaragarria.

ATXONDO. Etxebizitza 2 logelarekin, komuna, despentsa, sukaldea esekitokiarekin, eta egongela.

ZALDIBAR. Etxebizitza, 3 logela, komuna, sukaldea, egongela balkoiarekin, guztiz berriztatua. Horrez gain, trastelekua.

LURSAILAK SALGAI

ABADIÑO. 1.000 m²-ko lursaila salgai, bifamiliarra eraikitzeko baimenarekin. Zonalde egokia.

BERRIZ. 10.000 m²-ko lursaila. Zelai ederra sarbide oso onarekin.

IURRETA. 5 hektarea inguruko lursaila, Abeletxe bat egiteko aukera dago. Sarbide onarekin.

ABADIÑO. Bifamiliarra eraikitzeko lursaila, 1.000 m². Informazio pertsonalizatua.

AMOREBIETA. EUBA. Txalel bifamiliari bat eraikitzeko lursaila, 3.000 m² inguruko azalerarekin.

AMOREBIETA. LARREA. 27.000 m²-ko lursail ederra, dena partzela bakarrean.

BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

ABADIÑO. GAZTELUA. Baserri ikusgarria, arku eder batekin sarreran, ekialdera begira, 20.000 m²-ko lursaila baserriaren ondoan.

BERRIZ. Txalela 1.200 m²-ko partzelan, Abeletxe kalean. Hegoaldera begira. 4 logela, 3 komun, sukaldea, egongela, eta garajea.

ATXONDO. Baserri ikusgarria Martza auzoan, 15.000 m²-ko lursaila baserriaren inguruan. Teilatu berria. Zonalde pribilegiatua.

BERRIZ. Bº Murgoitio. Bifamiliari ederra salgai. 6 logela, 2 sukalde, 2 egongela, 6 komun, garaje bikoitza, 12.000 m²-ko lursaila. Kokapen ezin hobea, Anbotora begira.

MENDATA. Lamikiz auzunea. Baserri bifamiliarra berriztatuzko. Orientazio pribilegiatua, oso eguzkitsua. Prezio interesgarria.

DURANGO. Eraikin atxiki ederra, izkina, guztiz hornitua. Ia berria, estreinatuzko.

BERRIZ. Baserri ederra, Murgoitioko zonaldean. Egokia landa-turismorako, landetxea. Ikuspegi ezin hobea.

ISD Inmobiliaria del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com

ETXEBITZAK SALGAI

DURANGO-TROMPERRI



- 99 m²ko etxebizitza eraikita. 4 logela, egongela handia, sukaldea jarrita, 2 komun, garajea eta ganbara. Dena kanpora begira. Ikuspegi onak eta eguzkitsua. Terraza eta txoko komunitarioa. 243.900€.

MUSIKO ALTUNA



- Etxebizitza guztiz berriztatua. 3 logela, egongela, sukaldea jarrita, 2 komun, ganbara eta garajea. Guztiz isolatua. Konsultategia izateko prestatua dago. 206.000€.

DURANGO-BARRENKALE: ALOKAIKUA, EROSTEKO AUKERA



- 67 m²-ko etxebizitza dotorea, 2 logela, egongela, sukalde amerikarra, komun 1, 2 balkoi, trastelekua. 199.000€. 700€-rekin hilabetearekin.

TABIRA



- Apartamentu ederra, hegoaldera begira, Tabirako zonaldean. Logela 1, egongela, sukaldea jarrita, komuna, balkoia eta kamarotea veluxekin. 198.000€.

DURANGO-ALLUITZ



- Logela bateko apartamentua, egongela, sukaldea jarrita, komuna, balkoia eta ganbara. Bizitzera sartzeko moduan. 140.000€.

DURANGO-ANTSO ESTEGI



- Etxebizitza 4 logelarekin, egongela, sukaldea jarrita eta komuna. Berogailua gas naturalarekin. Bizitzera sartzeko moduan. 134.000€.

www.inmoduranguesado.com

ETXETXO
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com

AUKERA

- DURANGO. (Zeharmendieta) 3 logela. Komuna. Egongela. Berogailua. Bizitzera sartzeko moduan. 85.000€.

- KURUTZIAGA. 3 logela, komuna eta balkoia. 130.000€.

- MATIENA. Laubideta k/. 4 logela. Komuna. Sukaldea. Egongela. Garajea aukeran. AUKERA. 155.000€.

- A. ESTEGIZ. 2 logela. Komuna. Egongela. Sukaldea. Ganbara. Igogailua. Eguzkitsua. 90.000€.

- IURRETA. 3 logela. Igogailua. Berogailua. 115.000 €.

ETXEBITZAK SALGAI

- ABADIÑO. Txanporta. 2 logela. Komuna. Ganbara. Kalera ematen duen garajea. 130.000€.

- ELORRIO. Balentin Berriotxo. 103 m². 3 logela. 2 komun. Sukaldea. Egongela.

- ELORRIO. 3 logela. Komuna. Sukaldea. Despentsa, egongela, trastelekua. Ikuspegi onak. Eguzkitsua. 129.000€.

- F.J. ZUMARRAGA. Apartamentua. Erdi berria. 155.000€.

- OLLERIA. 100m². 3 logela. 2 komun. Sukaldea Esekikotia. Egongela. Terraza. Ganbara eta garajea. 265.000€.

- M. TORRE. 134m². 4 logela. 2 komun. Sukaldea. Egongela terrazarekin. Trastelekua. 2 garaje. 270.000€.

- IZURTZA. 2 logela. Komuna. Egongela. Bizitzera sartzeko prest. 85.000€.

- IURRETA. Maspe. 3 logela. 110.000€.

- TABIRA. 2 logela. Komuna. Egongela. Guztia berriztua. 125.000€.

- TROMPERRI. 4 logela. 2 komun. Egongela. Ganbara eta garajea. Txoko komunitarioa. 243.900€.

- TABIRA. Erdi berria. 3 logela. 2 komun. Egongela-sukaldea. Terraza. 285.000€.

- KOMENTUKALE. 4 logela. Komuna. Egongela. 125.000€.

- F.J. ZUMARRAGA. 100m². 4 logela. 2 komun. Ganbara eta garajea. 236.000€.

- IURRETA. ELIXALDE. BERRIA ESTREINATZEKO. 100m². 2 logela. 2 komun. Sukaldea. Esekikotia. Egongela terrazarekin. Ganbara, eta garajea itxia. 245.000€.

- MIKELDI. Etxebizitza altua. Erdi berria. 3 logela. 2 komun. Egongela. Sukaldea esekitokiarekin. Trastelekua. Garajea. 270.000€.

- EZKI. 2 logela. Komuna. Sukaldea. Egongela. Trastelekua. Zelaiarekin. 170.000€.

- AMOREBIETA. 70 m². 2 logela. Komuna. Berriztua. 160.000€.

- ATIKOA. 35m²-ko terrazarekin. 2 logela. Komuna. Egongela. Ganbara eta garajea.

- ZALDIBAR. Iturrioz. 3 logela. Komuna. Egongela. 2 terraza. Igogailua. 140.000€.

- ZUMALAKARREGI. 65 m². (Bulegoa izateko egokia).

LOKALAK SALGAI ETA ALOKAIKUAN

- F.J. ZUMARRAGA. 114m². SALGAI. 200.000€.

- IBAIZABAL. 50m². Guztia jarrita. 500€.

- KOMENTUKALE. 50 m². Guztia jarrita. 85.000€.


- IBAIZABAL. 55 m². Guztia jarrita. Alokairua/ Salmenta.

- ERDIALDEAN. 228 m². Salmenta. 182.400€ (sartzeko aukera. Negoziagarria.)

- DURANGO. TABERNA martxan. 95m². 186.000€.

LOKALAK ETA ETXEBITZAK ALOKAIKUAN. KONTSULTATU.
www.inmoetxetxo.com

**ALOKAIKUAN
ETA SALGAI DITUZUN
HIGIEZINEN BERRI
EMAN NAHI
AL DUZU?**



**Anbotok tarte hau
eskaintzen dizu**

Informazio gehiagorako:
Tel.: 946 217 902
publi@anboto.org

anboto.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK	5 IBILGAILUAK
2 TEKNOLOGIA	6 HARREMANAK
3 LANA/NEGOZIOAK	7 AISIA/KIROLA
4 DENETARIK	8 FAMILIA/ETXEA

Eguazteneko 17:00ak arte jasotako iragarkiak bariku horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean.

NORBANAKOEN IRAGARKIAK
Interneten eta paperean, doan: Partikularrentzat - Erregistratu www.anboto.iragarkilaburrak.com webgunean eta jarri zure iragarkia (paperean argitaratu aukerari eman behar zaio eta bertan anboto aukeratu) edo bidali mezua: anboto@anboto.org .
Paperean, ordainduta: Enpresentzat - Iragarki laburretatik bereiztuta eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonoan.

Higiezinak
ETXEBIZITZAK
SALDU
Lekeitio. Lekeitio Alde Zaharrean eta itsasoari begira 3 logelako duplex zoragarria salgai. Tel.: 650-18 33 05.
Mallabia. Aukerakoa, nekazaritzarako edo nekazaritza-turismorako, toki eguzkitsu eta ederrean, 20.000 m2 lursail. Prezio egokia, ikusi nahi baduzu, deitu. Tel.: 655-70 26 47 (19:00-21:00). Nahi izanez gero, aukera dago lursail gehiago eskuratzeko.
Mallabia. Pisu eguzkitsua, 3 logela haundi, 2 komun, terraza, sukaldea eta egongela. 100 m2 azalera eraikituak. Harremanetan jartzeko deitu: 695-77 31 41.
ERRENTAN EMAN
Torrevieja (Alacant). Torreviejan bungalowa alokatzen da. 3 logela, egongela, igerilekuak eta berdeguneak. Familientzako egokia. Tel.: 615-77 96 22.
Etxebarri. Etxebarrin etxea terrazarekin alokagai. Sukaldea, egongela, bainu bat eta logela. Hornituta. 550 euro. Tel: 647-36 98 76
Zaldibar. Zaldibarren apartamentu bat alokatzen da logela bat, sukalde, jangela eta bainugela, garajeetan lokal itxi bat, igogailua, bi kaletara leihoak. Bikote batentzako aproposa. Tel.: 664-10 27 91.
ERRENTAN HARTU
Durango. Durango pisu bila dabilen bikote langile bat gara. birazabal@gmail.com / Tel.: 653-72 43 19 (Beñat).
PISUA KONPARTITU
PISUKIDE BILA
Durango. 31 eta 35 urteko neska euskaldun bi hirugarren pisukide jator baten bila gabiltza, Durango, merkatu plazaren ondoan dagoen 3 logelako etxe batean. 200euro inguru hilean, gastuak barne (etxe dana 500euro dira, kontratuarekin). Uztailetik aurrera (uda ondoren ere izan daiteke, uztailetik aurrera nahiago dugun arren). Tel.: 667-92 38 91 / mugurdiurdinak@hotmail.com .
LOKALAK
SALDU
Lekeitio. Lekeitio 65 m2-ko lokala salgai. Alde Zaharrean. Tel.: 650-18 33 05.
GARAJE / TRASTEROAK
SALDU
Durango. Durangoko

Montebideo kalean, Jesuitetako 2. solairuan garaje bikoitza salgai, irekia, baina ixteko aukerarekin. 27,87 m2. 32.000 euro (negoziagarriak). Tel.: 695-71 00 27.
Otxandio. Otxandion garaje plaza estalia salgai. Tel.: 675-71 72 83.
LURSAILAK
ERRENTAN HARTU
Durangaldea. Durangaldean lur sail bat alokatu/erosi nahiko nuke. Txikia izanda ere nahikoa litzateke. Kotxez eskuragarri. Erlauntz batzuk ipintzeko izango litzateke. Zure ortua polinizatu eta uzta hobea izateko onuragarria izan leike! Tel.: 629-58 37 63.
Teknologia
GAINERAKOAK
EMAN
Bidali zure ordenagailua. Zure ordenagailua hondatuta badago, zaharra bada edo zaborretara bota behar baduzu, jaso, konpondu, eta Federación Niños del Mundo elkartearen bitartez bidaliko dugu Boliviako eta Peruko ospitaleetara eta eskoletara. Tel.: 655-71 76 66.
Lana - negozioak
LAN ESKARIAK
ETXEKO LANAK
Elorrio. Emakume arduratsuak etxeko lanak egiteko eskaintzen du bere burua. Esperientzia handia. Erreferentziaduna. Tel.: 688-92 75 58. Posta: juliachans67@gmail.com .
PERTSONAK ZAINDU
Durango. Pertsona nagusiak zaintzen lan egin nahi dut. Praktikak egin ditut erresidentzian. Tel.: 652-23 82 60.
Durango. Emakume arduratsua prest dago pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko. Barruko edo kanpoko langilea. Orduka ere lan egiten dut. Sukalde laguntzailea ere bai. Tel.: 651-94 14 57.
Durango. Gizon arduratsua prest dago pertsona nagusiak zaintzeko. Gidatzeko baimena daukat eta esperientzia. Ordutegi malgua, lanegun eta asteburuetan. Tel.: 631-82 46 08.
Durangaldea. Neska arduratsua lan bila dabil barruko langile moduan pertsona nagusiak zaintzen. Tel.: 612-40 09 15.
Durangaldea. Laguntzaile pertsonalak (gizon emakume helduak) prest daude adinekoak zaintzeko, medikuenera

eramateko zein etxeko lanak egiteko. Durangaldea. Tel.: 690-28 60 71. Posta: elorrirak@yahoo.es .
Durangaldea. Lan bila nabil. Umeak zaintzen, nagusiak, garbitasunean... Tel.: 632-70 81 59.
Durangaldea. Pertsona nagusiak zaintzen ditut barneko langile moduan. Tel.: 602-16 92 35.
Durangaldea. Garbiketan, nagusiak zaintzen zein umeak zaintzen. Tel.: 665-51 65 39.
Durangaldea. Lan bila nabil pertsona nagusiak eta umeak zaintzen. Tel.: 632-08 60 75.
Durangaldea. Lan bila nabil garbiketan, nagusiak zaintzen zein umeak zaintzen. Tel.: 632-70 81 59.
Durangaldea. Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Barruko edo kanpoko langile moduan. Tel.: 632-51 61 91.
Durangaldea. Umeak edo nagusiak zaintzen lan egin nahi dut, baita garbiketan ere. Orduka, egun osoan, edota gauez ere. Tel.: 692-34 52 15.
Durangaldea. Gizon arduratsua lan bila dabil pertsona nagusiak edo baserriak zaintzen. Garbiketan ere jarduten dut. Berehala hasteko moduan. Barneko zein kanpoko langilea. Tel.: 697-23 76 00.
Durangaldea. Neska arduratsua lan bila dabil pertsona nagusiak eta umeak zaintzen. Garbiketan ere jarduten dut. Barneko edo kanpoko langilea. Orduka eta lanaldi erdi ere bai. Tel.: 677-77 00 08.
Durangaldea. Lan bila nabil barruko edo kanpoko langile moduan pertsona nagusiak zaintzen. Tel.: 631-28 33 97.
Durangaldea. Lan bila 40 urtetik gorako emakumea. Esperientzia pertsona nagusiak zaintzen. Barneko langile moduan lan bila nabil. Durangaldean bada, nahiago. Tel.: 612-21 26 54.
Durangaldea. Neska arduratsua prest dago pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko, orduka, asteburuetan, barruko edo kanpoko langile moduan. Gauetan laguntza ospitaletan. Garbiketa taberna, diskoteka, atari eta etxeetan. Tel.: 697-31 33 58.
Durangaldea. Neska arduratsua prest dago pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko, orduka, asteburuetan, barruko edo kanpoko langile moduan.

Gauetan laguntza ospitaletan. Garbiketa taberna, diskoteka, atari eta etxeetan. Tel.: 663-51 37 21.
Durangaldea. Neska arduratsua lan bila dabil arratsalde edo gauez pertsona nagusiak zaintzeko. Garbiketan ere jarduten dut. Esperientziagaz. Paperekin. Tel.: 620-14 17 12.
Durangaldea. Emakume arduratsua, esperientziagaz eta erreferentzia onekin prest dago pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko, etxea garbitzeko, sukaldean aritzeko, arropak lisatzeko eta taberna eta atariak garbitzeko. Berehala hasteko moduan. Kanpoko langile moduan, orduka, gauetan, asteburuetan eta jaiegunetan. Tel.: 632-41 25 57.
Durangaldea. Emakume arduratsua, esperientziagaz eta erreferentzia onekin prest dago pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko, etxea garbitzeko, sukaldean aritzeko, arropak lisatzeko eta taberna eta atariak garbitzeko. Berehala hasteko moduan. Kanpoko langile moduan, orduka, gauetan, asteburuetan eta jaiegunetan. Tel.: 663-37 51 55.
Durangaldea. Pertsona nagusiak zaintzeko prest nago, barruko edo kanpoko langile moduan. Orduka eta asteburuetan ere bai. Tel.: 634-74 85 31
GAINERAKOAK
Durangaldea. Lorezaintzan, obran edo baserrian lan bila nabil. Aste bitartean edo asteburuetan. Ordutegi zabala. Tel.: 602-16 48 06.
LAN ESKAINTZAK
OSTALARITZA
Abadiño. Matienako Kali tabernan pertsona bat behar dugu ostegunetan eta ostiraletan lan egiteko, irailtik aurrera. Tabernatik pasatu CV uzteko. Tel.: 946-81 20 19.
Berriz. Berrizen asteburuetan lan egiteko sukaldaria behar da. Tel.: 946-82 40 27.
Mallabia. Mallabiko herriko tabernan zerbitzaria behar da asteburuetan lan egiteko. Tel.: 625-70 14 60.
ETXEKO LANAK
Atxondo. Pertsona bat behar dut udan, batez ere abuztuan, etxeko lanak egiteko Atxondon. Helbide

elektronikoa: kobaue@gmail.com
PERTSONAK ZAINDU
Durangaldea. Pertsona arduratsu baten bila gabiltza irailtik aurrera umeak zaintzeko eta etxea garbitzeko. Tel.: 615-70 19 08.
IRAKASKUNTZA
Durangaldea. Kaixo, ingelesa ondo dakien norbait behar da 2. Batxilergoko ikasle bati klase partikularrak emateko. Tel.: 688 639 547
GAINERAKOAK
Durangaldea. Esperientziadun pertsona behar da bidaia agentzia batean lan egiteko. Plaza hutsa da. Hizkuntzak jakitea, bidaiaitzeko prest egotea eta gidatzeko baimena izatea baloratuko da. Bidali curriculum admin@ viatgespoblenou.com-era .
Durangaldea. Durangaldeko enpresa batek administrazio eta finantzetako goi mailako teknikaria behar du enpresaren administrazioa eramateko. Ezinbestekoa euskaraz lan egiteko gaitasuna. Jardunaldi osoko lanpostu egonkorra da. Berehala lanean hastea aurreikusten da. Bidali cv-ak laneskaintzak@gmail.com helbidera.
GAINERAKOAK
Durango. Lanerako leku bat eskaintzen da Durangoko San Inazio auzoko coworking batean ingurumena, diseinua, ingeniaritza eta tankerako alorretan lanean dabilen jendearekin espazioa konpartitzeko. Prezio ona, giro atsegina eta euskalduna. Urtebeterako konpromisoa eskatzen da. Interesa duenak deitu edo whatsappetik idatzi: 659-68 02 17.
Denetarik
SALDU / EROSI
Txakurkumeak. Ardi-txakur alemaniar arrazako txakurkumeak salgai. Tel.: 635-70 52 18.
Txerrikumeak salgai. Txerrikumeak salgai. Tel.: 692-36 69 55.
GAINERAKOAK
SALDU
Bizikletarako umeen karroa. (Bi plazakoa). Berri berri dago. Tel.: 605 70 51 41.

AGENDA

ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi agenda@anboto.org helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.



Uztailaren 8an, 22:30ean, Elorrioko plazan

Quantic & His Orchestra

Ingalaterran jaioetako Will Holland musikariaren funka, soula, cumbia eta bossa uztartzen dituen proiektua da Quantic & His Orchestra. Beste bost musikarigaz etorriko da Elorrioko Musikaire jaialdian jotzera.



Jaiak

:: ABADIÑO (Mendiola)

UZTAILAREN 8an

18:00etan, txopoa ipintzea.

20:30ean, berakatz zopa.

22:00etan, Drug Rockets + Niña Coyote eta Chico Tornado + Riff Truckers + Txapito Guzman & Ibarako langostinoak, kontzertuan.

UZTAILAREN 9an

11:30ean, Mendiola baserrien argazki erakusketa.

12:00etan, meza.

13:00etan, auto erakusketa.

14:30ean, herri bazkaria.

16:30ean, umeen jolasak.

18:00etan, ardi-txakur txapelketa.

19:30ean, tortilla txapelketa.

22:00etan, Luhartz.

00:00etan, bolo txapelketa.

03:00etan, txokolatea bizkotxoekin.

UZTAILAREN 10ean

12:30ean, dantzariak.

13:00etan, ardo, ogi eta gazta banaketa.

20:30ean, Mariatxi Amatitán. Osteen, Donien Atxa kentzea.

:: ZALDIBAR

UZTAILAREN 8an

17:30ean, nagusien eskularen erakusketa jubilatuen etxepean.

18:00etan, pilota partidua Olazar pilotalekuan.

18:30ean, Burrumba elektrotxaranga eta mojitoa.

19:30ean, kantu poteoa Felipe Zelaietagaz, udaletxetik hasita.

22:30ean, DJ Jose Mari, Olea kalean. Arkada Social eta Joxe Replay, txosnagunean

UZTAILAREN 9an

11:00etan, pilota partidua (Valentzia-Zaldibar), Olazar pilotalekuan.

11:00-13:00 eta 16:00-19:00, umeen jolas-parkea, eskolako jolastokian.

14:30ean, gazteen bazkaria, Gaztelekuan.

17:00etan, Gazteen I. Artisau Azoka, txosnagunean.

17:30-20:30, nagusien eskularen erakusketa, jubilatuen etxepean.

19:00etan, afari-merienda herrikoia, udaletxeko plazan.

19:30ean, Elektrotxaranga eta mojitoa.

23:30ean, Joxpa erromeria.

03:30ean, kulero, tanga eta galtzontzillo lasterketa.

UZTAILAREN 10ean

10:00-13:00, arku-tiroa ume eta helduentzat, Olazarko Arku taldearen galerian.

11:00etan, kalejira trikitilariakin.

11:45ean, umeen euskal dantzak, Zaldia plazan.

17:00etan, umeentzako entzierroa, udaletxe inguruan.

17:30-20:30, nagusien eskularen erakusketa, jubilatuen etxepean.

18:00etan, balkoitik balkoira bertso saioa, Onintza Enbeita, Jone Uria eta Uxue Alberdigaz, Zaldia plazan.

22:00etan, jaietako argazkien emanaldia, udaletxeko plazan.

23:00etan, su artifiziaiak, Gaztetxearen ondoan.

UZTAILAREN 16an

07:00-15:00, mendi martxa neurtua, Zaldia plazan hasita.

18:00, XXXIII. Argazki Rallyaren emanaldia eta sari banaketa, liburutegi zaharrean.



Zirkua

:: BERRIZ

UZTAILAREN 8an

20:00etan, Maintomano taldearen 'Ekilibua', Olakueta plazan.

:: DURANGO

UZTAILAREN 9an

20:00etan, 'Ekilibua' zirkua, Ezkurdi parkean.



Dantza

:: ELORRIO

UZTAILAREN 10ean

19:00etan, dantza garaikidea, plazan.



Musika

:: ATXONDO

UZTAILAREN 14an

19:30etan, Txapito Guzman taldearen kontzertua eta pintxo-pote mexikarra, igerilekuko tabernan.

:: DURANGO

UZTAILAREN 14an

20:00etan, Amaia Urzaikiren 'Chansons d'amour', Kurutzesantu Musean.

:: ELORRIO

UZTAILAREN 8an

22:30ean, Quantic & His Orchestra, plazan.

UZTAILAREN 9an

22:30ean, Rocky Dawuni, plazan.

UZTAILAREN 15ean

22:30ean, Abou Diarra, Lariz jauregian.




Erakusketa

:: DURANGO

UZTAILAREN 17ra arte

Oier Anduezaren 'Margoak. Leihak. lhesak' erakusketa, Arte eta Historia Musean.



:: DURANGO | ZUGAZA

Mi amigo el gigante

- **barikua 8:** 19:30/22:00
- **zapatua 9:** 17:00/19:30/22:30
- **domeka 10:** 16:30/19:00/21:30
- **astelehena 11:** 18:30/21:00
- **martitzena 12:** 20:00

Money monster

- **barikua 8:** 19:30/22:00
- **zapatua 9:** 17:00/19:30/22:30
- **domeka 10:** 16:30/19:00/21:30
- **astelehena 11:** 18:30/21:00
- **martitzena 12:** 20:00

Mi panaderia en Brooklyn

- **barikua 8:** 22:00
- **zapatua 9:** 22:30
- **domeka 10:** 21:30
- **astelehena 11:** 21:00
- **martitzena 12:** 20:00

Buscando a Dory

- **barikua 8:** 19:30
- **zapatua 9:** 17:00/19:30
- **domeka 10:** 16:30/19:00
- **astelehena 11:** 18:30

:: ZORNOTZA | ZORNOTZA ARETOA

Mi amigo el gigante

- **barikua 8:** 20:15
- **zapatua 9:** 22:00
- **domeka 10:** 18:00/20:00
- **astelehena 11:** 20:15

UZTAILEKO AGENDA



8

SANTA ISABEL EGUNA SAN ANDRES AUZOAN

12:00 Meza
13:00 Luntxa.
14:30 Igel txapelketa.

10

SAN KRISTOBAL EGUNA

12:00 Meza. Jarraian, bazkari herrikoia. Trikitilariak giroa alaituko dute.

11-12

ANDEREBIDE

Irailak 5. "Control de ansiedad" kurtsoaren hasiera. Izen-ematea: Uztailaren 11-22. Informazio gehiago: Tel.: 616 490 506.

16

SANTA MAÑAKO JAIK ARRIANDI ARRIANDI JATETXEAN

17:30 Santa Mañako II. Mus Relanpago Txapelketa. Bikote bakoitzak 20 euro ordaindu beharko ditu parte hartzeko. Izen-ematea, Arriandi jatetxean, 17:00 baino lehen.

18

SANTA MAÑA EGUNA ARRIANDI

Santa Mañako basilizan
12:00 Meza. Jarraian, tortillak, gozokiak, karramarroak eta edariak banatuko dira.

SANTA MAÑAKO XXXIX. tortilla txapelketa
Bikote bakoitzak 10 euro ordaindu beharko ditu parte hartzeko. Osagaiak eta ikatza jai batzordeak jarriko ditu.

SANTA MAÑAKO XXXII. igel txapelketa
Partaide bakoitzak 3 euro ordaindu beharko ditu parte hartzeko.

AMEZKETAKO ESKOLAN

18:00 Santa Mañako XLVIII. txapelketa.
Bikote bakoitzak 6 euro ordaindu beharko ditu.
19:00 Gorriti bere animaliekin, ume eta helduentzat jolasak, Amezketaren inguruan.



Uztailaren 10ean, 19:00etan, Elorrioko plazan

Dantza garaikidea

Musikaire jaialdiaren egitarauaren barruan dantza garaikideko hiru emanaldi izango dira, domekan, Elorrian. Uztailaren 10ean, 19:00etan, plazan izango da emanaldia. Legacy Dance Company taldeak 10 minutuko 'One' ikuskizuna eskainiko du, 'Larrua' izenburuko 15 minutukoa egingo du izen bereko taldeak, eta Matxalen Bilbaoren koreografian oinarrituriko 'Gear' 13 minutuko ikuskizuna ere ikusgai izango da. Dantza garaikideko obrak dira hirurak.

> BOTIKAK

BARIKUA, 8
09:00-09:00

Unamunzaga
Muruetatorre 2C - Durango

Sarasketa, Diego
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

ZAPATUA, 9
09:00-09:00

Sagastizabal
Askatasun etorb. 19 - Durango

Sarasketa, Diego
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

09:00-13:30

Melero, Rosa Mari
San Pedro 31 - Zornotza

De Diego
Intxaurren 22. - Durango

Campillo
Montevideo etorb. 24 - Durango

Bazan Diaz
Uribarri 5 - Durango

Bartolome
Gabiola 2 - Berriz

Jaio-Olabarrieta
Errekakale 6 - Elorrio

DOMEKA, 10
09:00-09:00

Bazan Diaz
Uribarri 5 - Durango

Sarasketa, Diego
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

ASTELEHENA, 11
09:00-09:00

Navarro
Artekalera 6 - Durango

Iruarrizaga, Karmele
San Miguel 15 - Zornotza

09:00-22:00

Sarasketa, Diego
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

MARTITZENA, 12
09:00-09:00

Mugica
Andra Maria 9 - Durango

Iruarrizaga, Karmele
San Miguel 15 - Zornotza

09:00-22:00

Sarasketa, Diego
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

EGUAZTENA, 13
09:00-09:00

Balenciaga
Ezkurdi plaza 8 - Durango

Iruarrizaga, Karmele
San Miguel 15 - Zornotza

09:00-22:00

Sarasketa, Diego
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

EGUENA, 14
09:00-09:00

Campillo
Montevideo etorb. 24 - Durango

Iruarrizaga, Karmele
San Miguel 15 - Zornotza

09:00-22:00

Sarasketa, Diego
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

> ZORION AGURRAK

 zorionak@anboto.org
eguztaren 14:00ak arteko epea



Ermodo, 11 · DURANGO - Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
 **Gozatu Gozategia**

Zorionak, **Irati Hernandez!** Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9an.



> Zorionak, **Peio!** 3 urte bete dozuz ja, mutil handi! Patxo handi-handi bat etxeko guztixen partez!



> **Inaxio**, gure patro handiak..., 80 bete berri ditu! Zorionak Salbadoreko familia osoaren partez!



> Irribarre berezi horrek 30 urtean parekorik ez dabelako izen. Zorionik beroenak eta mosu handi bat etxeko danon partez! Ia aurtan zorion menuan aldaketarik dauen.



> Etxeko futbolariak 7 urte betetzen ditu. Ondo pasa eta musu handi bat, **Marko!** Maddi, amatxo eta aitaxoren partez. Zorionak eta aupa Real!



> Zorionak, printzesa! Etxeko txikiak ostegunean 3 urte bete ditu. Jarrailu orain bezain alai eta dibertigarri. Guraso, familia eta etxekoan partez.



> Uztailaren 7an 50 urte ezkondu zinetela. Zorionak, **Puri** eta **Antonio** familiaren partez, laster alkatuko gara danok ospatzeko. Besarkada bat bikote.

> EGURALDIA

ZAPATUA	29° / 19°	
DOMEKA	25° / 16°	
ASTELEHENA	23° / 16°	
MARTITZENA	21° / 16°	
EGUAZTENA	27° / 16°	
EGUENA	22° / 14°	

UDAKO
ARGAZKI
LEHIAKETA



BADATOR UDAKO
ARGAZKI LEHIAKETA!
Laster informazio gehiago



Eneke Larrakoetxea. Igerilekua
2015eko Anbotoko epaimahal sariaren irabazlea

